

ttüpi-ttapa

1994.eko uztailak 14 • 138. zenbakia

Elkarrizketa
Arizkun, NUPeko Hizkuntza
Normalizaziorako
errektoreordea

BAR
RESTAURANT
MATXIARENA

BAR

BESTAK:

BATZUEN LANA

GUZTION GOZAMENA

¡¡FELICES FIESTAS!!
¡¡BESTA ZORIONTSUAK!!



CAJA DE AHORROS DE NAVARRA
NAFARROAKO AUPREZKI KLITXA

DATUAK.....

❖ 1989an ekin zion bere lan akademikoari NUPen, bertan Irakaskuntza eta Irakaslego errektoreordea ere izan delarik..

❖ NUPeko irakasle titularra da Historia eta Ekonomi Erakundeetako sailean..

❖ Lehendik, EHU-UPVen lan egin zuen.

❖ Gaur egun Nafarroako 1850 eta 1950 bitarteko industriaren bilakaera ikertzen ari da.

❖ Bere lanen artean aipatu beharrekoa da 'Economía en un valle pirenaico del Antiguo Régimen. Baztan 1600-1841' izenekoa.

❖ NUPeko ordezkaria da Eusko Ikaskuntzan.

Alejandro ARIZKUN: «Unibertsitatean euskara ez da normalduko gizartean egin artio»

ZEIN DA ZURE FUNTZIOA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOAN?

Gaur egun, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hizkuntzaren Normalizaziorako errektore ondokoa naiz. Zentzu horretan, nire lana normalizazio prozesua planifikatzea da. Normalizazioaz hitzegiterakoan zera erran nahi dut; Nafarroako euskal komunitateak, bere betekizun sozial guztiak euskaraz burutu ahal izateko garatu behar den prozesua, alegia. Jakina da prozesu honek gainditu egiten duela unibertsitate beraren esparrua, eta hortaz, unibertsitatean euskararen egoera ezta normalduko gizartean normaltzen ez den bitartean. Halere, prozesu horretan unibertsitateak protagonista izan behar du eta ez du zertan esperoan egon beharrik.

HIZKUNTZAREN NORMALIZAZIOAK ALOR BATEAN BAINO GEHIAGOTAN DU ERAGINA. NOLA DAGO EGOERA ARLO BAKOITZEAN?

Jakina, arlo diferentteak kontutan hartu behar dira; irakaskuntza



bera, unibertsitatearen aktibitateak, irakasle-goa, barne administrazioa... Euskaraz ematen den irakaskuntzari dagokionez, duela bi urte berriro hasi zen Magisteritza Eskolan euskarazko lerroa, eta datorren urtean aterako dira lehen diplomatuak. Halere oraindik onartu

gabe dago NUPeko 5 zentruak kontutan hartuko dituen planifikazio orokorra. Denboraz eta zehaztasunez egin behar da hori. Helburua euskara bertze zentru eta titulaziotara zabaltea da. Prozesu horretan, oinarrizko hiru erizpide kontutan hartu behar dira; Nafarroak unibertsitate-ikasketetan dituen behar sozialak, irakaslegoa prestatzea eta ikaslegoaren eskakizunak.

IRAKASLEGOAREN DISPONIBILITATEA ZERTAN DAGO?

Euskaraz emateko gai den irakaslegorik ez dagoen bitartean ez dago deus egiterik; hori argi dago. Hortaz, ditugun errekurtsioen arabera, heldu den urtean bertan gai diren irakasleak klaseak ematen hasteko plana egin da. Guztira 5 ikasgai dira: nekazal ingeniari-tan, ekonomian eta soziologian. Gutida. Hortaz, epe ertain batera, garrantzitsuago da behar sozialak aztertzea eta horrekin diseinu soziolinguistikoa burutzea.

► *“Normalizazio prozesuan oinarrizko hiru erizpide kontutan hartu behar dira: Nafarroak unibertsitate-ikasketetan dituen beharrak, irakaslegoa prestatzea eta ikaslegoaren eskakizunak”*

BESTAK AILEGATZEN DIRENEAN, GUTTI DIRA AITZINETIK EGINDAKO LANEAN ERREPARATZEN DUTENAK: DIRUA ETA ANTOLAKETA EGOKIA BEHAR BEHARREZKOAK DIRA HERRIKO BESTETAN JENDE GUZTIAK GOXATZEKO.



Udarekin batera, hasiak dira inguruko herrietako bestak. Guztiok itxaropenarekin espero ditugu, baina badira bertze batzuk, bestak behar bezala ateratzeko antolakuntza lanetan aritzen direnak. Noski, dirua ere behar beharrezkoa da egitaraua ahalik eta hobekien osatzeko. Baina, nor da bestak antolatzen dituen eta nola ordaintzen dira?

TESTUA
AITOR AROZENA
ARGAZKIAK
ARTXIBOA

HERRIKO BESTAK: BATZUEN LANA ETA GUZTION GOZAMENA

h

herri gehienetan, Udalaren ardura izaten da herriko bestak antolatzea eta herriko diruaz baliatzen dira hauek ordaintzeko. Malerreka eta Bortziritako bestak udalek antolatu eta ordaintzen dituzte. Gehien jota, bestak baino lehenago bilera irekia izaten da, jendeak bere proposamenak

aurkezteko. Egia erran, ez dute erantzun haundirik izaten eta urtetik urtera aldaketa ttikiak izaten dira. Aurten, salbuespen bezala, Nafarroa Oinez-ek antolatuko du Berako bestetako egun bat. Igantzin ere, ekitaldi erakarriagoak antolatzen laguntzeko bide berexia hartu zu-

ten duela bizpahiru urte bertako gazteek. Udalak ateratako mendi lanak egiten zizutzen, modu honetara maila haundiko musika talde edo txaranga ekartzeko dirua eskuratuz. Halere, lehendabiziko urtean izugarritzko arrakasta izan bazuen ere, bigarrenean gaztedia ez zen

«Ferietako diruarekin ordaintzen ditugu Elizondoko bestetako zorrak»

sobera animatu eta bere hortan gelditu zen esperientzia.

ZENBAIT HERRIETAN ELKARTEEK HARTZEN DUTE ARDURA


Leitzaldeko herrietan, bestak udalek ordaindu arren, elkarre nagusiek lan handia egiten dute antolaketan. Leitzako Aurrera eta Goizuetako Umore Ona dira, maila handi batean, udalak paratutako dirua gestionatzen dutenak. Izan ere, herritar gehienak elkarre hauetako kideak baitira. Honek, bestek izaten duten kutsu instituzionala arintzen laguntzen du eta herritarren parte hartzea antolakuntzan haundiagoa dirudi.

BESTAK ANTOLATZEA GAZTEEN KONTUA DA SARALDEAN

Saraldeko besten antolaketa, herriko gazteen ardura izaten da gehienetan. Saran, adibidez, Herriko Etxeak ez du liberarik ordaintzen eta gazte elkarre batek antolatu eta ordaintzen ditu bestak. Horretarako, bestak baino bizpahiru aste lehenago auzoz auzo ibiltzen dira gazte taldeak, aitzineko urteko bestetako kontuak emanaz eta dirua eskatuz. Honetaz gain, zozketa baterako txartelak saldu, pilota partidetan zapela pasatu eta larunbat, igande eta asteazkenean ostatu paratzen dute. Larunbateko jaialdira sartzeko ere ordaindu behar izaten da.

Urdazubin ere gazteen esku izaten da besten antolaketa, baina dirua biltzerakoan lehenago mugitzen dira; inauterietan bildutakoarekin ordaintzen dira bestak zati handi batean. Gainerakoa, udalak emandakoarekin eta bestetan paratzen duten ostatuarekin ateratzen dute.

Zugarramurdin ere gazteek antolatzen dituzte bestak eta dirua, gehien bat, Amabirjin laugarrenean egiten den zikiro-jatean ateratzen dute, 700 lagunendako zikiroa prestatzen baitute. Frontoi berria egina dutenez, aurten, ekai-



Jon FRANTZESENA
Elizondoko alkatea

■ Nork antolatzen ditu herriko bestak?

□ Baztango hamabortz herrietan, herri bakoitzeko alkateak eta kargodunek antolatzen dituzte bestak.

neko gaupasan ateratako diruaren zati bat ere, bestak hobetzeko erabiliko dute, urtean zehar kultur ekitaldiak antolatzeaz gain.

Aurrekontua osatzeko gelditzen den dirua, bestetan eskean eta udalaren laguntzarekin -200.000 pezeta inguru egiten dute.

ALKATE ETA KARGODUNEK ETXETZ ETXE BAZTANEN

Baztanen, herri bakoitzeko alkate eta kargodunen lana izaten da bestak antolatzeko. Balleko Udalak laguntza tiki bat ematen dio herri bakoitzari eta aurrekontua estaltzeko etxe etxe ibiltzen dira eskean eta bidenabar, egitaraua banatuz.

NORENZAKO ANTOLATZEN DIRA BESTAK?

Herrietako bestak antolatzen dituzten guztien iritzia -udala bera izan edo gazteak izan- bat dator honetan: jende guztiak disfrutatzen egiten dira bestak. Horretarako, egitarau gehienetan adin sektore bakoitzari dagokion egun berexi bat izaten da herri aunitan. Bertze gauza da denek berdin goxatu ahal izatea... ■

Dirua lortzeko etxe etxe ibiltzen gara, bestak baino egun batzuk lehenago. Programa ezku esku banatzearekin batera dirua eskatzen dugu.

■ Eta jendeak nola hartzen du hori?

□ Baztango jendea ohitua dago honetara eta normalki ongi hartzen du. Hori bai, jende gehienak zerbait ematen badu ere, bada dirua ematen ez duen jendea.

■ Etxez etxeko bilketarekin bestetako aurrekontua estaltzeko ailegatzeko zai-zue?

□ Ez, inoiz ere. Elizondon bestek beti zorrak uzten dituzte. Programa dirua bildu baino lehenago egiten dugu eta badakigu zorrak izanen ditugula. Halere, herriko

kontuak feriak pasatuta egiten ditugu eta orduan ateratzen dugunarekin kitzatzen ditugu zorrak. Hori izaten da gure salbamendua, azken finean ferietako postuek ordaintzen dituzte Santiagoak, zati handi batean. Bestetan ere, 'auto-txoke' edo tiro postuetatik ateratzen dugu zerbait.

■ Baztango udalak zerbait laguntzen du?

□ Gutxi, gu eskatzera joaten gara baina nahi baino gutiago lortzen dugu. Aurten bestetarako uste dut 925.000 pezeta eman dituela eta horrekin ezin da deus egin. Zaila da udaletik gehiago ateratzea, izan ere herri aunitz gaude Baztanen eta dendakako banatu behar da dirua.



HERRI GUZTIETAN, MUSIKAK — ARRATS PARTEKO TALDEEK ETA TXARANGAK BATEZ ERE— ERAMATEN DUTE AURREKONTUAREN ZATI HAUNDI BAT. DANTZARIK BERRIZ, NORMALEAN HERRIKOAK DIRELAKO EDO, EZ DUTE GASTU HAUNDIEGIRIK.

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.800 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

uzendaria: Joxemanuel Iri-
oién. **Publizitatea:** Miren Kar-
ele Tolosa. **Erredakzioa:** Ai-
ror Arozena, Joxemanuel Iri-
oién. **Erredakzio taldea:** Pe-
ro Apezetxea, Juainas Paul,
Kristina Boan, Bittori Telletxea.
erriemaileak: Joseba Azpi-
oz, Esteban Arozena, Juana
Lari Saizar, Ainhoa Mutuberria,
Juan Isasi, Txema Aldabe, Pello
Utxegia, Txema Urroz, Patxi
Utxandorena, Daniel Martirena,
Label Maia, Josune Etxebeste,
Eduardo Mendiburu, Joseba Iga-
bide, Alizia Olaizola, Margari-
te Utxenike, Koro Irazoki, Mixel
Utxendiain, Jacqueline, Marta
Utxerria, Oskar Txoperena, Al-
berto Sansiñena, Pello Apezet-
xea, Aitor Arozena, Kristina
Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE
Nafarroa, Patxi Lasa, Josetxo
Utxerregi.

primategia: Gertu (Oñati).
ttiipi-ttapak ez du bere gain
hartzen derrigorrez, aldizkarian
dierazitako erranen eta eritzien
trantzukizunik

arakunde Laguntzaileak:
Aitor Arozena, Leitzza, Goizueta, Areso,
Eduardo Mendiburu, Urdazubi, Zugarramur-
di eta Sarako udalak, Bor-
naburietako Euskara Mankomuni-
tatea, Malerreko Zerbitzu
Mankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Bestak eta emakumearen partehartzea

Bestetan besta egiten dut, etxeko lanak alde batera utzita



Maite BIURRARENA
Berako gaztea

Gazte gehienak bezala, besta gauzez egiten dut. Goiz partean etxera ailegatu eta arropa sukalden uzten dut amak garbitzeko. Ohatzean sartu eta eguerdirarte lo egin ondoren bazkaldu eta gero siesta egiten dut. Bestatan, nere kezka bakarria besta egitea da eta egia erran behar bada, etxeko lanetan ez dut sobera laguntzen egun horietan. Bazkaria amak kontzen du prest, nik jateko gogoia jartzen dut bakarrik. Bestatan gure amak ere ez du aparteko lanarik egiten, normalean egiten duena baino ez; normalean etxeko lanetan nere laguntza baldin badu ere, bestatan bakoitzak berea egiten du, denak besta egiten dugu... Halere, egia da ama beti pendienteago ibiltzen dela etxeko kontuetaz gu baino. Dena den, ez uste berak ere gehiegi egiten duenik, lehenengo egunean gauzak prest uzten baititu eta gero ondorengoak.

Emakumeak besta egiteko etxekoan laguntza behar du



Dolores ALBIZU
Lesakako etxekoandrea

Etxean gizonen baino askoz lan gehiago egitea tokatzen zaie emakumeei, urtean zehar nahz bestetan. Orain badirudi zerbait aldatzen ari dela, baina etxeko lanak gehien bat emakumeari tokatzen zaizkio. Gizonak bestetaz disfrutatzen ahal du soil-soilik, baina emakumeak bestetan disfrutatzeke lan egin behar du aitzinetik. Niri pertsonalki, ostatu batetan lan egiten dudanez, urtean zehar baino lan gehiago egitea tokatzen zait eta ezin dut sobera parte hartu bestetan. Batez ere etxetik kanpoko lana da, baina etxekoa alde batera utzi gabe. Lehenengo egunean dantzak ikusteko astia hartu nuen bakarrik, gainerakoan lana egitea tokatu zait. Gizonezkoak erraten duten bestetan emakumearen partehartzearen alde daudela, baina horretarako etxekoek, gizonak zein seme-alabek laguntza gehiago eman beharko lukete etxean.

Juerga egiteko denborarik ez zait ailegatzen orain



Josefa LOIARTE
Zubietako etxekoandrea

Lehenago asko ateratzen ginen kanpora fiestetan baina orain gutxi. Familiako jende franko etortzen zaigu eta janaria prestatzen joaten zait denbora. Urtean zehar aste egunez baino lan askoz gehiago egiten dut, goizeko gosaritik hasita gaueko afaria bitarte. Goizaldean gure etxe parean suertatzen diren gazteei ere ematen diet gosari pixkot, txuri-beltzak edo txorizoa, kafea edo kopa edo gaileta batzuk... Horrek arrunt majo egiten du. Juerga egiteko denbora ez zait ailegatzen garai batean bezala. Orduan ataritan dantza egiten genuen, baina orain zahartu gara horrelako gauzak egiteko. Gizonek bakarrik fiesta egiten dute, sukaldetan eta gure lantokitan ez dira moldatzen. Bestalde, egia da janaria aurretik prestatzen ahal duzula, gaurko egunean bada dira komodidadeak -kongeladorea...- eta errexa da.

LEGARRA

- PAPERTEGIA • TABAKOAK •
- LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZUAK

- ⇒ Fax Publikoa
- ⇒ Enkuadernazioak
- ⇒ Inprenta lanak • fotokopiak
- ⇒ **%25eko**

deskuentoa
diska, kasette eta liburuetan

Legarra 9, © 637030 - LESAKA

GRUPO ZURICH



ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

SAROBEn okindegia



SANDERS Pentuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

BOTA BERTSOA

IRAKURLEAK MINTZO



**Baztandarren
Biltzarra**

Amagoia SANSIÑENA

Baztango Bertso Eskolako
Neurria: Hamarreko handia

*Hamazazpian Baztan bailaran
besta giroa sentitu
zabar eta gazte bazkari batez
egiten gera elkartu
bazkal ondoren bertsoak entzun
eta zortzikoa dantzatu
baita ere patxaran botila
guk esku artean bartu
aurtengoan ere leben bezala
euskarak gu batzen gaitu.*

*Eguna ongi igarotzeko
badaude aukera mila
ongi pasteko besta bonetan
ez da izan behar abila
dena den norbait baldin badabil
gauza gehiagoren bila
nik nere lana bete egin dut
adieraziz gauza pila
beraz gehiago jakin nabi duenak
bona etorri dadila.*

**Berako
igerilekua**

Jada hilabete bat pasa da, Berako igerilekua ideki zutenetik. Beti bezala, ideki baino lehen, arduradun kargua ematen zaie pertsona batzuei. Aurtun kargu hori gazte batzuei eman zaie. Jendea, gazte hauek igerilekua ongi eramateko fundamendua izango dutela uste zuten, baina nere ustez horiek oker zeuden. Zergatik? Pizsinak, sarrean kartel handi batetan ikus dezakegun arau bat dauka eta arduradun hauek, ez dute arau hau betetzen ondorengo kasu hauetan ikusten den bezala. Adibidez, arau horretan belarrean ezin dela jan jartzen badu, jendea belarrean jaten egoten da eta arduradun hauek ixilik geratzen dira. Hortaz aparte, arauan belarrean ez silletarekin ezta zapatillekin ere eta oin hutarik bakarrik sartu daitezela jartzen badu ere, jendea zapatillekin nahiz silleta eta bertze gauzekin sartzen da eta arduradun hauek berriro ere ixilik geratzen dira. Garbitasunari dagokionez, komunak zikin zikinak daude eta ura are eta gehiago. Uretan sartzeak nazka ere ematen du, eta hori jendea-

ri ez zaio aunitz gustatzen, beraz, arduradun hauei garbitasun eta seriotasun pixkat eskatuko nieke.

JULEN ZELAIETA
ENA.- 44.557.393

**Bortzirietako Hiri
Hondakin**

Mankomunitateari
Egia da azken urteotan, orokorrean, zabor eta hondakin bilketa aunitz

hobetu dela gure herriotan. Gaur egun ez dago kontrolatu gabeko hainbete zabortegirik eta hori nabaria da. Halere, oraindik orain badago zer hobetu. Errate baterako, botila eta beirazko hondakinak aparte biltzeko, ontzi bereziak jarriak daude han hemenka. Eta ageri denez, jendeak ohitura hartu du; botilak edozein boltsatan sartu beharrean xehetzeko eta ebakiak egiteko duen arriskuarekin dagokion ontzira botatzen du. Baina arazoa ontzi hauek gainezka egiten dutenean dator, jendeak edozein bazterretan uzten baitu botilak. Zoritxarrez aunitz daude ontzi hauek goitiraino beteak. Ez dakit biltzaileak epearen barnean biltzen dituzten. Honela bada, bitatik bat, edo botilendako ontzi gehiago paratu edo gehiagotan bildu behar dira. Bortzirietako karrika bazterrak eta auzoak garbiagoak egonen direlakoan, nere eskaera kontutan hartzea nahi nuke. Milesker.

M^º Jesus L.
ENA.: 72.665.421

OHARRA:

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, TTIPI-TTAPAK bere esku izanen du horretarako eskubidea.

**ARTEKARI
TALDEA**

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40

Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ✎ Langile Autonomoak
- ✎ Nekazariak eta mendi langileak
- ✎ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratarako laguntzak
- ✎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ✎ Diru-laguntza ezberdinak
- ✎ Kontabilitateak
- ✎ IVA eta IRPF
- ✎ Errenta aitopenak
- ✎ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ✎ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak





IRUTXULO Donostiako Astekaria 94-VI-24

«Lanak eta handik ateratzeko gogoak bultzatu gaitu Arantzatik Egiara. Herrian mendian lan egiteko aukera baino ez dago, eta mendiko lana oso gogorra da».

Joseba eta Bittor ZUGARRAMURDI
Arantzatar bixkiak Donostiako Egiara ouzoan lanean Irutxulo 94-VI-24

«Ez nuen espero Iruñeko Udalak antolatutako Gazteentzako I. ipuin lehiaketa irabaztea, baina gustatu zitzaidan egin nuen lana. Idazteko lehenengo gogoak behar da, eta borrekin jarraitu behar dituzu lanean...».

Jon UITZI
18 urteko idazle goizuetarra Nafarkaria 94-VII-1

◆ **Erratzuko bestak edo Elizondokoak?**

❖ Erratzukoak, herri tikietak giroa beroagoa da eta gainera bertakoa naiz..

◆ **Elizondoko bestak edo Baztandarren Biltzarra?**

❖ Elizondoko bestak.

◆ **Igandetan mendira joan edo lo egin?**

❖ Besta egin ondotik lo egin, bertzenaz hondartzara.

◆ **Igerilekua edo hondartza?**

❖ Hondartza.

◆ **Futbol Mundialak edo Tourra?**

❖ Tourra nahiago dut, nahiz eta kirol guztiak gustatu.

◆ **Haragia edo arraina?**

❖ Haragia plantzan.

◆ **Gizonek emakumeen lentzeria erosten dute?**

❖ Ez, etortzen direnak erregalo bat egin nahi dutelako etortzen dira.

◆ **Gizonen barneko arropan bada modarik?**

❖ Bai, aukera handia dago bainan bakarrik gazteenak etortzen dira.

◆ **Despedidetako pikardiak erregalaten dira?**

❖ Bai, beti beltza erosten da.

◆ **Bainu jantziak edo bikiniak saltzen dira gehiago?**

❖ Bikiniak.

◆ **Negua edo uda?**

❖ Uda, uff! maite dut eguzkia.



Maite AIZPURUA

Erratzuarra,
Maite Lentzeriakoa

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



bitxikeriak • opariak • eskulangintza

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO BIDAIAK

BIDAI AGENTZIA
G.A.T. 2.015

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta BIDAI ALTERNATIBOAK

ADURANA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUIN

E D A R I A K




MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

Gure Txokoaren ekintzetan 450 bat herritarrek parte hartzen dute

Hoietako gehienak kirol ezberdinetan



Lupe Mendigutxia da Gure Txokoako lehendakaria. Berekin batera, 24 bat herritarrek osatzen dute Zuzendaritza Batordea.

gerre eta Ugazteren artean eramaten dute aitzinera. *Pilota:* ardurduna L. M. Retegi. *Tennis:* Rafa Unsion. *Rugby:* J. A. Etxeberria. *Atletismo:* L. Bru eta J. M. Zubieta. *Txirrindularitza:* A. Retegi. *Herri Kirolak:* B. Goia eta M. Etxegarai. *Igeriketa:* S. Mazizior. *Kultura:* I. Artieda, B. Telletxea eta L. Mendigutxia. *Euskal Dantzak:* T. Zubieta, Mikel Iturria eta K. Boan.

Diruari dagokionez, urtean barrena 20 milioi pezeta mugitzen ditu elkarteak eta horietatik 2,7 bazkideen kuotetik hartzen dira. Hortik gainerakoa, laguntzailer eta patrozinadoreek ematen dute eta ahaztu gabe udalak ematen duen dirutza eta uzten dizkien instalazioak.

Gogoratu azkenik, elkarteak 1931n sortu zela 'Sociedad Círculo Recreativo Deportivo' izenarekin.

Alkaiagako bestak uztailaren 23tik 25era

Hogeita hiruko ilunabarrean hasiko dira 'Maixa eta Itziar' en dantzaldia-ekin. Igande goizean 'Alkaiagako Mendi Bizikleta Itzulia' izanen da, eta arratsaldean, haur jokoak, txokolte jatea eta Behobia, Bera, Etxarri eta Alkaiagako taldeen artean sokatira proba. Gaueko 8etan Gure Txokoa dantzari taldea arituko da eta arratsean 'Noise Hole', 'Zup' eta 'Nahas Mahas' musika taldeek joko dute.

Xantio egunean meza izanen da trikitilarien laguntzarekin eta gero, eguerdiko 2etan auzo-bazkaria. Ondotik trikitixa eta dantzaldia Seinekin.

ttipi-flash

❖ 'Kaxerna' Udalekua

56 haur dira dagoeneko apuntatu direnak beratar gazte talde batek egindako eskaintzara. Kirola, kultura eta jostatzeko aukera dute bertan. Altzateko frontoia izan da udalak horretarako utzi diena eta, toki egoki bilakatu dutela erran behar.

❖ Igeriketa ikastaroa

Igeri egiten ikasi nahi duenak hilabete honetan izanen du honetarako aukerarik. Goizez eta arratsaldean egingen dira ikastaroak. Apuntatzeko igerilekura joan.

❖ 1974an sortuak

Urte horretan sortutakoek Sanestebanetan elkartasun-afari eder bat egiteko deia luzatu dute. Interesa dutenek Karmelo Alzugurenekin jar daitezela harremanetan.

❖ Nafarroa Oinez

San Ferminak probetuz, material gehiena saldu dute.

GOZOTEGI - JAIONE



Itzea 3, 630786 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



© 631076 • BERA

AYLA
ARGAZKI DENDA

Bixente TABERNA

• EZKONTZA ERREPORTAIK
Argazkiak eta Bideoa

Legia 4 • BERA

LAISTER ZABALIK





Aurten ere giro ederra bizitu da Sanferminetan

Txupinazora sekula baino jende gehiago agertu zen eta asteburuan izugarrizko kanpotar pila etorri zen

AITOR AROZENA

Urte guztia Sanferminen esperoan eta aurtengoak ere joan zaizkigu ustekabeen. Aste egunez, giro ederra bizitu dugu etxe-koak eta asteburuan, urtetik urtera kanpotar gehiago agertzen dira.

Bezperako txupinazotik igandeko 'Pobre de mi'ra bitarteko ordu guztietan ongi pasatzeko aukera izan genuen. Aurten Justo Agirretxe, kultur batzordeko zinegotzia izan da altxareroa bota duena. Sekula baino jende gehiago zegoen txupinazoaren esperoan. Uztailaren 7an, Bortzirietako presoak gogoratuz omenaldia egin zuen Amnistiaren Aldeko batzordeak. Gogoratu behar da Iñaki Fagoaga lesakarrak sanfermin egunean betetzen dituela urteak. Peñen egunean gazte koadrilak izan ziren, beti bezala, protagonistak. Egitarauan ez da berrikuntza haundiegirik



Sanferminak giro ederra ekarri dute herriko karriketara. Trikitilariak behinpin horretan saiatu ziren txupinazoa aditu orduko. Arg.: KARMELE

izan, baina urteroko berbenen ordeztu, bi gauetan, reggae eta rock kontzertuak izan ditugu. Alemaniako dantza taldeak eskeinitako emanaldia ere ikusgarria izan da. Frontoiko bertso saioak ere jendetza polita bildu zuen. Aurtengoak joan dira, bainan heldu den urtekoen esperoan gaude. Gero eta guttiar go falta da.



Jesus Mari Calvo korrikalari lesakarra buru-belarri dabil kamarero laisterketetan. Aitzineko alean, Parisen seigarren postua eskuratu zuela aipatu genuen —ordukoa da argazkia— eta Sanmartzialetan Irungo karrera irabazi zuen.

ttipi-flash

- ❖ **Elgorriaga**
anai-arrebak, Jone eta Joxe Mari, laugarren postua eskuratu zuten Nafarroako I. trikitixa txapelketaren finalean. Lezaungo bes-tetan antolatutako txapelketan ere 4. izan ziren.
- ❖ **Leire Portu**
txapeldun suertatu zen Nafarroako koxkor biltze txapelketan. Bigarren urtea da lehen postua lortzen duena.

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hobereena

**Frexkuena
zugandik
hurbilago**

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Deñe

LENTZERIA

MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Behoko Plaza 8, LESAKA

IRUBIDE

**OSTATUA
ERRETEGIA**

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

XATURETXEA



JATETXEA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA



Igeriketa ikastaroak hasiak dira ematen

Gehien animatu direnak haurrak badira ere, helduek ere badute aukera

PELLO ETA ALBERTO

Haurrek nahiz helduek igeritan ikasteko aukera izanzen dute Udal igerilekuetan. Udalak antolatutako, hasteko, uztaila osoan luzatuko dira. Izaskun, Berako igerilekuan ere ari dena dute monitore, eta arratsaldero arituko dira. Momentuz hiru taldetan banatuak daude: 5-6 urtekoak, 7-11koak eta helduagoak, eta talde bakoitza hiru ordu laurdenez arituko da.



Jauregieta auzoko bazkaria

Uztailaren lehen igande horretan Jauregieta auzotarrak ere elkartzeko ziren, urteroko bazkaria egitera. Lau-urteko hainbat lagun denetara, bertze bazkaltokia zuten auzotarrak, Etxeberrigaraiaren gainaldeko belatia. Bazkaltzerakoan gelditutakoa probexteko aitzakiaz, berendua afaria ere egin zuten.

Ana Iribarren eta Arantxa Perugorria: 'Jendeak ez ditu arauak betetzen'

Espero hainbat jende etortzen da?

Bai, asteburuetan batez ere; igandeetan kanpoko jendea ere bai. Astegunez, goizetan gutxi baina 2,30etatik aitzinera haur saila, baita haundiak ere. **Zein duzue prolema edo kezkarik haundiena?**

Jendeak ez duela igerilekuetako arauak bete-

zen. Bertze herrietako igerilekuetan ez direla hain estuak eta, jendeak ez du onartzen paratutako araudia. Amak bereziki nabarmentzen dira horretan. Arroparekin ezin dela sartu? Ba, arropa, zapa, bolto eta denekin sartu. Ez dakite, behar bada, Gobernu Osasunbidea Departamenduak eskatzen duela hori, Udalak



onetsi eta paratu dituela, eta gu garela erantzuleak. Ttikiekin berriz, hagitz konforme gaude. Ongi ikasi dute eta errespetatzen dute errandakoa.

Zer iduritzen zaizue lana?

Lan aunitz dela, jendeak uste ez badu ere.

ttipi-flash

Santakrutz

ondoan dagoen errota zaharberitze-ko asmotan dabil Lindsay Grizzell.

Jarlekuak


Bieleko errekan eta Ainegin baziren lehendik ere errepede edo karretera bazterrean ibiltzen direnentzako jarlekuak. Dena den, Bieleko erreka oso zabal eta material ez estalita eta trabatu egoten zenez, orain trabak kentzeko erabakia hartu du Udalak eta Ainegikoari estali tiki bat egiteko. Gainera, Larraldeazpian bertze aulki bat paratuko du.



KATTU
OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA



HARITZPE
JATETXEA

KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK
Sukaldaritarik hoberena xokorik politenean

Gurutze Etxea - Jauregieta auzoa - Tfnoa: 635038

• **ETXALAR (NAFARROA)** •



Berriz ere arazo larriak ur-sarearekin

Bainatzen ahal da piszinetan, baina ez zerbitzu guztiekin

OSKAR TXOPERENA

Hamaika burukomin ematen ari da ur sarea azken urteotan.

Berriro ere, lehertu egin zen ura herrira dakarren tuboa, Ankulutsako parean hain zuzen.

Bere garaian, egin zenean, behar baino aunitzez tubo txarragoa sartu zuten nonbait eta orain agertzen ari da.

Heldu den urtean aldatzeko asmoa zuen udalak depositotik Ankulutsa arte heldu den tuboa, hala onartu baitzion Nafarroako Gobernuak Hirurteko Plangintzan, baina, orain arte bezala segitu ezinik, aurten bertan egingen da seguraski aldaketa.

Hamar milioiko au-



Haurren Eguneko atsedenealdian arrautu ditugu haur hauek. Pilotan ez ezik honetan ere sake ederra izaki. Arg.: OSKAR

rrekontu edo presu-
puestoa du eta udalak dirua aitzindu egin beharko du, dirulaguntza heldu den urterako onartua zen eta.

Horrelaxe erabaki

zuten azken batzarrean.

Eskola Kontseiluak ere egindako zenbait eskari onartu ziren azken udalbatzarrean, Eskola atariari zegozkionak gehien bat (jos-

tatzeko tresnak, porteriak, kanastak...).

Barrenean egiteko diren zenbaitentzat behar den lekura dirulaguntzak eskatzea erabaki zen.

ttipi-flash

❖ Piszinak

Joan den igandean irekitzekoak ziren piszina. Hala ere ez ditu zerbitzu guztiak eskeiniko aldagelak akautzekoak direlako eta belarra zenbait egunez zanpatu ezin izanen delako.

❖ Udako klaseak

Aurtengo udan ere klaseak izanen dira Igantziko eskoletan, gogoia edo beharra duten haurrentzako. Izenak uztailaren 15a arte eman ahal izanen dira Idoia edo Jaioneri deituaz; 637792 edo 637078.

❖ Omenaldia

Aurten 85 urte bete dituen igantziar bakarra dugu Iñarreko Eusebia. Horrexegatik omendu du Arkupeak. Honetarako ekainaren 30ean egin zen bestara iaz baino jende guttiago joan zen Igantzitik, 16 guztira

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA © 630735 • IRUN © (943) 622305



ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA



HERRIKO OSTATUA ETXALAR

JATETXEA

© 635290 • ETXALAR

KOXXKONTA



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA



Sanjoan suaren ohiturak gibelera egin du azken urteotan

Aurten herriko suak bitara bildu dira: bat Osiña auzoan eta bertzea Goienburun

MARTA ITURRIA

Ekainak 23ero bezala, Sanjoan sua egin zen. Halere, ez dugu aspaldiko su pila hura ikusterik izan, orduan, bat pisutan, bertzea frontoian, baserri gehienek berea... han hemenka pilaka izaten baitzen. Aurten herriko suak bitara bildu dira: bat Osiña auzoan eta bertzea Goienburun. Osiñakoa ikusi genuen guk. Auzoko haur guziak bildu ziren, ez ordea heldu guztiak. Pena haundiena hori baita, haurrentzeko joko bezala uztea Sanjoan gaueko sua. Bertzalde, Aientsako Meakan ere, sua piztera animatu omen ziren.



Arratseko 10ak aldera, egun batzuk lehenagotik bildutako kajekin sua piztu zuten Osiña auzoko haurrek. Marta ITURRIA

ttipi-flash

❖ Garbitze lanak

Jesus Almandoz 'Lopene', herriarentzat ari da lanean sei hilabeteko. Gordeta dauden bideak garbitu, herriko iturriak moldatu, mendiak garbitu, eta orokorrean garbitze lanak egingen ditu.

❖ Mendi-bide seinaleak

Nafarroako Mendi Federazioak seinaleak paratu ditu mendi bideetan.

'Cederna-Garalur'eko teknikoak informazioa ematera etorriko da

'Cederna-Garalur'eko teknikoak hilabeteko hirugarren ortzegunetan etorriko da Aran-

tzara. Bertan, Europa eta Nafarroako dirulaguntzetaz emanen du informazioa: etxeak

moldatzeko daudenak, makinak erosteko, etabar. Hoieta zerbait jakin nahi duenak, ager

dadila Herriko Etxera hilabeteko hirugarren ortzegunetan arratsaldeko 5etan.

ANTZUZELA S.L.

IRUNGO errepidea - 31780 BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardadao' Mazizoa
Zuhar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

ATERPE jatexea

Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA

BOTXO ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Parket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxoak
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak

JOSEMA RAMOS

Zolak akutxilatuta eta barnizatzen ditut

© 631342 BERA
© 637172 LESAKA



Arkupeak elkarteak besta eta omenaldi giroan ospatu zuen bere zortzigarren urteurrena

Ekainaren 30ean ia mila lagun bildu ziren Donezteben

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Ekainaren 30ean, azken urteotan tradizio bihurtzen hasi den bestaren edizio berri bat antolatu zuen Arkupeak elkarteak. Eguraldi sargoritsuak beharbada sobera laguntzen ez bazuen ere, ia mila lagun bildu ziren goiz goizetik.

Goiz partean protokoloak hartu zuen zatirik haundiena. Agintari ugari bilduak ziren Donezteren; Juan Cruz Alli lehendakaria, Ricardo de Leon kontseilaria, elizagintariak, Nafarroako Aurrezki Kutxako agintariak...

Ongi etorriak egin ondotik, meza nagusia burutu zen jendez bete-betea zegoen elizan. Segidan omenaldiei etorri zitzaizen txanda eta hiruak aldera, elkartasun bazkarian mila lagun inguru elkartu ziren. Eguna borobiltzeko bazegoen nahikoa animaziorik eta gainera Donezteben Sanpedroak ospatzen.



Gaineko bi argazkietan, omenduak izan zirenak daude. Gain-gainekoan urrezko ezteiak bete dituztenak eta behekoan, 85 urtekoak. Eskuinaldekoan ikusten denez, lore sortak eta orogarriak Alli lehendakariak eta Ricardo de Leon kontseilariak banatu zituzten.

Proiektu berriak

Arkupeak elkarteko arduradunek diotenez, '1995erako eginak egonen dira Malerreka pisu tutelatuak', horren gibe-

tik 'zazpi urtez ibili ondotik'. Gainera, heldu den urtean bertan Doneztebe bertatik tramitatuko dira pentsioen arazoak.



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziendo, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.

Koltxoa aldatzeko aukera berezia aprobetxa ezazu.

1. kalitateko koltxoiak oso prezio interesgarrietan

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Malerreka

Langarra Euskara Taldeak pelikula emanaldiak antolatu ditu herriz herri

Malerrekako herri guztiak izanen dute gau batez pelikula bat ikusteko aukera

TTIPI-TTAPA

Aktibitate berri bat antolatu dute Langarra taldekoek udako gauak goxatzeko. Malerrekako Kultur Zikloaren barnean, guztira hamalau pelikula ikusiko dira bertze hainbat herritan, herri bakoitzean bana. Uztailaren 12, **Iturengo** Plazan 'Arrosaren izena'; 13an **Elgorriagako** frontoian 'Allien', 14ean **Oitzko** frontoian 'Ama begira ezazu', 15ean **Ezkurako** frontoian 'Rain Man', 18an **Legasako** frontoian 'Willow', 19an **Donamariako** frontoian 'Ander eta Jul', 20an **Saldiasako** frontoian 'Jeremiah Jonhson', 21ean **Doneztebeko** frontoian



Plaza eta pilotalekuak gauetan pelikulak proiektatzeko ere erabaliiko dira hilabete honetan, kotxerik traban ez baildin badago behinpin.

'Tartariarren basamortua', 22an **Eratsungo** frontoian 'Rio Bravo', 26an **Beintza Labaiengo** frontoian 'Moskito kostaldea', 27an **Narbarteko** frontoian 'Kokodrilo Dandi', 28an **Sunbilla**ko frontoian 'Anastasia', 29an **Urrotzko** frontoian 'Aterix Galiarra' eta 30ean **Zubietako** Plazan 'Lasterketa isila'. Pelikula guztiak gaueko 10,30etan proiektatuko dira.

ttipi-flash

- ❖ **Paula Casares**
Bera da Malerrekako Euskara Teknikari berria.
- ❖ **EGA ikastaroak**
Abuztuaren 8tik aitzinera egunean 4 orduko ikastaroak emanen dira eta astean 5 egunez.
- ❖ **Euskara hobetzen Zubietan**
Denetara 12 daude, 10 neska eta bi mutil. Sarrera ona egin zuten herrian, etorri eta Doneztebeko bestetara joan baitziren.
- ❖ **Goardia Zibilak**
Doneztebeko bestetan istilu ugari sortu zituzten ostatueta.



SANTAMARIA
Jatetxea
Especialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

urritaren **URTARO BERRIEN ARROPAK**



San Migel auzoa 27, 450883 - DONEZTEBE


FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S. L.

Egunaren 24 ORDUTAN zure esku gaituzu.
ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404

IGANTZIKO UDALA



Igantzi Udalak, plegu itxiaren bidezko enkante irekian, salgai jarriko du "Andereñoaren etxea" bezala ezagutzen den etxebizitza, haren xehetasunak ondokoak direlarik:
Berrizaungo auzoan eraikina, 2 oinekoa, eraikitako azalera totala 143,8 metro karratu eta erabilgarria 108 metro karratukoa delarik.
Hasierako prezioa: 5.346.000 pezeta.
Behin-behineko fidantza: 106.920 pezeta.
Proposamenak, Udaletxean aurkeztuko dira, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hasi eta hogeigarren laneguneko eguerdiko ordu biak baino lehen. Baldintza ekonomiko-administratiboak Udaletxeko Idazkaritzan egonon dira

Igantzi, 1994ko uztailaren 7an. Alkateak.

Uztailak 22, ortzirala
Arratsaldeko 5etan hau-
 rendako jokoak. **8etan**,
 Altxaferoa eta zopak.
12etan dantzaldia Joxe
 Angelekin.

Uztailak 23, larunbata
10etan argi-soinuak.
11etan balkoi lehiaketa,
 'Elgorriagako Bainuetxea.'
 erakundeak lagunduta.
Arratsaldeko 6etan, he-
 rrikoendako plater tirake-
 ta. **12etan** dantzaldia
 AISTRIKArekin.

Uztailak 24, igandea
10etan argi-soinuak.
12etan Japonian 'Zila-
 rrezko domina' eskuratu
 duen E. Ubani musikaria-
 ren kontzertua. **5etan**
 XXX. mus txapelketa.
 Ondotik, berendua. Dan-
 tzaldia URRATS taldea.
 Herriko Etxean, haurren
 mergo erakusketa.

Uztailak 25, astelehena
10etan argi-soinuak.
11etan meza. **12etan** Bi-
 dasoako txaranga. Arra-
 tsaldez eta gauez
 URRATS taldea.

Uztailak 26, asteartea
10etan argi-soinuak.
11etan herri crossa.
12etan toka txapelketa.
2etan zikiro-jatea Joxe
 Angelekin.



Zikiro-jatea Joxe Angelek alaituko du bere soinuarekin

Aurten ere sariak
lortzeko aukera
izanen da txapel-
keta ezberdine-
tan. Musekoak
adibidez, 30.
edizioa betetzen
du.

Argazkiak: Jose Ignacio
 OLAZAREK bilduak

Hainbat xoko berritzen ari dira uda honetan

Espainiako 28 gaz-
 te, bi monitoreren la-
 guntzarekin, herriko
 zenbait xoko (iturria,
 errota kanala eta guzi,
 labaderoa, erreka
 bazterrak, zubiak...)
 berritzen ari dira. Le-
 hen txandan 18 urtez
 behitikoak daude eta
 bigarrenen 25 urtez
 behitiko atzeritarrak
 etorriko dira. Eskola
 zaharetan egiten dute
 lo.

Nafarroako Go-
 bernuak eskeini du

aukera hau eta proiektu-
 a Luis Francisco
 Labe arkeologoak
 egin du.

❖ **Herriko**
 Etxeko beheko par-
 tean ostatua molda-
 tzen ari dira. Bestak
 akitu ondotik ateriko
 da subastara.

❖ **Maitxenea**
 Maitxenea Fonda jen-
 de berriek hartu dute.
 Bazkariak eta afariak
 ematen hasi direnez,
 bestetan probatzeko
 aukera izanen dugu.

MAITXENEA FONDA

Eguneko menua eta bokadilloak

☎ 45 01 29 • San Pedro, 28 • ELGORRIAGA

Hilarion Jatetxea

Arrain, marisko eta bertako produktueta espezializatuak

☎ 45 00 03 • ELGORRIAGA

**ITURENGO
 ZURGINDEGIA**

Besta onak pasa!

☎ 450327 • ITUREN



**ETXEBERRIA
 ZURGINDEGIA**

Klase guzitako lanak egiten ditugu

☎ 45 03 10 • ELGORRIAGA

Argitaratzailea: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Arantzako Herriko Etxea, 31790 Arantza, Tfnoa: 634125
Montajea eta Maketazioa: ttipi-ttapa

Abizenak euskaratzeko aukera izanen duzue

◆ Batzorde Erabakiorraren bilkura

Bortz herrietako udal ordezkariak ekainaren 29an bildu ziren Arantzán. Ukitu ziren gairik garrantzitsuenak aurtengo aurrekontuak, udalen diru-ekarpenak eta Mankomunitatearen funtzionamendua izan ziren.

◆ Udalen ekarpena

Mankomunitateari

Mankomunitatearen urteko beharrak ikusirik udal bakoitzaren diru-aportazioa %10ean igatea erabaki zen. Dena den, Berako Udalak bere ekarpena %5ean baka-rik igatea onetsi zuen, eta Lesakakoak berriz, iazko kantidadean mantentzea erabaki zuen. Halere, azkene-ko batzorde-bileran adostasunera ailegatu ziren, %10ean iganen delarik udalen aportazioa.

◆ Ordenantzei egindako alegazioen eztabaida

Batzorde Erabakiorrak iaz onartu zituen euskararen udal ordenantzak, bi urte ordenantzak diseinatzen eta eztabaidatzen ari ondotik. Halere, Beran eztabaida ugari egon zen gai honen inguruan. Hilabeteak pasa ondotik, apirillean Berako Herrialde taldeak eta Eusko Alkartasunak euren alegazio eta proposamenak aurkeztu zituzten. Geroztik, alegazio eta proposamen hauen eztabaida egiten ari



Irail edo urri aldera Euskara Mankomunitateak laguntza eskainiko du nahi duenak bere Izen-Deiturak euskal grafiaz jartzeko administrazioen erregistroetan.

gara Mankomunitatearen sail ezberdinetan.

◆ Kultur ekitaldietarako dirulaguntzak

Aurten ere Bortzirietan zenbait kultur ekitaldi (euskararen asteak, gehigarri hau, bertso-eskola, hitzaldiak...) aitzinera eramateko dirulaguntzak eskatu genituen Nafarroako Gobernuan. Denetara 1.570.000 pezetako aurrekontua egin genuen, hortik 975.000 pezeta onartu dizkigutelarik.

◆ Abizenak euskaratzeko aukera

Adi egon zaitezte iraila-urria aldera. Izan ere Euskara Mankomunitateak

'Echeverría', 'Aguirre', 'Irigoyen'... izen deiturak erregistroetan euskal grafiaz paratzeko aukera eta laguntza emanen baitizue.

◆ Euskaldunon

Egunkariaren 4. kapital gehiketa

Kapital gehiketa hau dela eta, Euskara Mankomunitateak 25.000 pezetako akzioa erosi zuen. 1990ean 500.000 pezetako akzioa erosi zen. Gainera, Mankomunitateak harpidetza egin berria du.

◆ Euskararen kale- neurketa

Bortzirietako karrketan euskara zenbat, noiz, norekin, etab... erabiltzen den

jakin gogoz, Euskara Mankomunitateak neurketa eginen du uda edo udazken aldera. Neurketa noiz eta nork eginen duen ez dizuegu erranen, inork bere ohiturak alda ez ditzan. Neurketa honen emaitzen berri ere izanen duzue, hauek aztertu bezain abudo.

◆ Udal langileak euskara ikasten

93-94 ikasturtean Bortzirietako bortz udal langile euskalduntze-alfabetatzen aritu dira. 94-95 ikasturteari begira, hamar bat izanen dira ikastaroetan parte hartuko dutenak, hauetako bortzek EGA ateratzeko ikastaroa eginen dute.

Ramoni Olaziregi: «Funtzionariok aukera dugu gure euskara egokitzeke Mankomunitateari esker»

Ramoni Bortzirietako Zabor Mankomunitateko administrari laguntzailea da. Beratarra da izatez eta Beran bizi bada ere Etxalarren egiten du, Mankomunitatearen lehendakaritza eta bulegoa bertan kokatua dagoenez.



Zuk jendearekin, telefonoz nahiz pertsonalki, hainbat harreman duzu zure lanean. Ze inportantzia ematen diozu lanean euskara mintzatuan eta idatzian egoki samar ibiltzeari?

Lan honetan sartzeko ez zidaten eskatu euskararen titulua. Merezimenduen artean puntuak, bai, eman zizkieten euskarajakiteari, eta ongi samar, gainera. Entzuten dudanez, gero eta gehiagotan ari dira titulua eskatzen, administrariren or-

dezkeri izateko, adibidez, azkenaldi honetan titulua eskatu omen dute, eta ongi iduritzen zait. Nik ez dut hain inportantea ikusten titulua preziskiki, ez dut ikusten hain derrigorrezkoa denik. Baina euskara ongi samar jakitea, bai.

EGA tituluak ez du, orduan, hainbertzeko garrantziarik?

Garrantzia, bai,

erran bezala, gero eta gehiago eskatzen delako, alde batetik. Bertetik, EGA titulua duenak nahiko maila ona duela uste dut guk egin behar dugun lanerako. Dena den, guk badugu prolema berezia: administrazio arloan hiztegi berezia erabiltzen da, izen teknikoak osatuta, kartak eta idazteko, eta hori dugu gehiago landu beharra. Badira zenbait for-

mula eta esaldi lehen erdaraz egin direnak, eta itzultzen denbora luzea joaten zaigu. Gehien sumatzen dugun prolema horixe da. Egin dugu horretarako ikastaro bat, interesgarria gainera, baina gehiagoren beharrez gaudete. **EGA titulua eskuratu berria duzu. Euskara Mankomunitatearen bitartez hainbat ikastaro antolatuta**

da euskara hobetzeko. Ze nolako balioa ikusten diezu?

Ikastaroak, noski, lagungarriak dira, hori ezin ukatu. Nik ere parte hartu dut horietako batean. Batzuek tituluarekin eta bertze batzuek esku-ratzeko bidean, Bortzirietako funtzionariook aukera izan dugu eta badugu gure euskara egokitzeke, Mankomunitateak eskeintzen dituen erraztasunak kontutan hartzen baditugu. Dena den, aurtien Bortzirietako euskaltegian ibili naiz EGA azterketa prestatzen.

Udaletako eta hainbat administrazio publikoko bulegoetan erdaraz egin da ia beti aunitz urtez; jendea ohitua zegoen. Ohitura honek segitzen du?

Bat edo bertze erdaraz etortzen bada ere, guardia zibilak eta herritarren bat, Etxalarren %95ek euskaraz egiten du, eta euskaraz eginez sartzten da. Izan ere, jendeak badaki nor ari garen lanean Udaltxean, badaki euskaldunak garela. Gainera, zuk hasteko «kaixo» edo «egunon» erraten badiozu, horrek inportantzia handia du, berehala jendea lasai euskaraz aritzen da.

— Etxalarren %95ek euskaraz egiten du eta euskaraz eginez sartzten da. Zuk hasteko 'kaixo' edo 'egunon' erraten badiozu, horrek inportantzia handia du. •

Berriak

Txaloketa



S elektibitatea dela eta, Berako Toki Ona Institutua txalotu nahi dugu izan duen jargeraren- gatik. Izan ere, aurrengoan ikasleek ez baitzuten azterketa

honen froga guztiak euskaraz egiteko aukerarik izan, eta hau salatzeke, ikastetxe honek protesta luzatu zion Hezkuntza Departamentuari.

Salaketa



Maiatzaren 29an, Lesakako Bete Gazte Elkarteak Nafarroako Txirrindula Txapelketaren barnean antolatutako lasterketa burutu zen. Lasterketaren

akaberan Lesakako Plazan egin zen ekitaldi guztia (sari banaketa eta abar) erdaraz bakarrik egin zuten antolatzaileek. Euskaraz ezta hitz bat ere.

Antzerkia



LAMIXINE BAT

(Berako Antzerki Tailerra)


Berako Antzerki Tailerra osatu genuenean aurrerantzean euskararen tratamendua hartu genuen kontutan.

Taldearen erditsua erdaldunak izanik, hasieratik genekien hagitz zaila izanena zela euskara hutsean lan egitea, baina argi genuen euskararen presentzia kontutan hartzekoa zela. Honek eta antzeslanak berak beharturik, «Altzateko Jaun» elebidun egin genuen. Alde batetik euskal ohiturak eta kristautasunaren arteko borroka istorioaren ardatza dirrelako eta hainbat pertsonaiek kristautasunarekin, euskara baztertzeko dutelako.

Hizkerari dagokionez bi euskara entzun ahal izanen dira, alde batetik Berakoa, beratarrek beratarrentzako egindako proiektua delako. Aldi berean, batua present egonen da Berakoa ez den jendeak ere taldea osatzen duelako eta Beratik kanpo antzestu behar dugulako.

Herriko Plaza

E kaineren 29an Batzorde Erabakiorrak egindako bilkuran Mankomunidade honen funtzionamendua izan zen eztabaidagai. Izan ere, azkenaldiko gertaera batzuk zalanizatzen uzten baitute Mankomunidadearen izaera eta ahalmena: Mankomunidadearen aurrekontuetako Udalen ekarpena gehitzea eztabaidatu eta ezetsi egin zen Lesakako eta Berako Udaletan eta bertalde, Berako 'Herrialde' taldeak Euskararen Udal Ordenantzei egindako alegazioetan ordenantzen onespena Mankomunidadeak Udaletara eramatea proposatzen dute. Gertaera hauekin Mankomunidadea



Juan Miguel ALMANDOZ
Euskara Mankomunitateko
Lehendakaria

Mankomunidadeak ahalmen eta izaera propioa dauka

baztertua eta indarririk gabe gelditzeko arriskua duela erran dezakegu.

Udalek Mankomunidadea ezagutu behar dute

Bere funtzionamendua egokia ziurtatu nahi baldin badugu oinarrikoa da Udalek bere nortasuna zein den ezagutzea. Mankomunidadeak bere izaera juridikoa du eta horren bitartez eraba-

kiak hartzen ahal ditu (aurrekontuak onartu, ordenantzak onetsi, kultur ekitaldiak antolatu...).

Mankomunidadearen funtzionamendua

Bortz Udalek borondatez eta adostasunez sortu genuen. Bertan erabakiak hartzen dituztenak zinegotzi edota alkateak dira. Gainera, ordezkari hauek herrietako Euskara Batzordeetan

ere parte hartzen dute. Beraz, Mankomunidadea eta Udalen arteko harremana zuzen zuzena da, edo hala izan beharko luke. Guzior helburua orain dela bortz urtekoa baldin bada, hau da, Bortzirietan EUSKARA NORMALIZATZEA, akats hauek zuzentzea ez zaigu zaila izanen. Arazoa larriagoa izanen da helburua aldatu baldin bada.


Berriak

'Bortziri' gaizki idatzia dago, 'Bortziriak' ongi

Badirudi gure artean badagoela halako joera, herriak dioena guttiesteko, herriak erabiltzen dituen hitzak aldrebeskeriatzat hartzeko, herria arlotetako edukitze-ko. (...)

Nere ustez dudarik ez dago Bortziriak erabili behar dela eta ez Bortziri. (...)

Izan ere, F. Idoatek bere «*Rincones de la Historia de Navarra*» liburuan erraten digunez, 1615. urtean Bera herriak Lesaka juiziora eraman omen zuen. Auzitegiak azkenean Berari arrazoa eman ez erabaki hau hartu zuen, hala nola, handik aitzinera ez zitzaiola 'LESAKAICO BORZ IRIAC' deituko (lesakarek nahi zuten bezala), 'BORZ IRIAC' soilikedo 'BORZ IRI NAFARROACOAC' baizik. Hemen interesatzen zaiguna zera da: lehen ere ez zela BORTZIRI singularrean erabiltzen, BORTZIRIAK pluralean baizik.



Eta lehen horrela erraten bazuten eta gaur ere herriak pluralean erraten badu, penagarri litzateke batzuri aldaketa hori egitea gogoratu zaielako, tradizioaren eta

herriaren kontra joatea. Ustedut errespetu gehixeago erakutsi behar geniokeela herriari. Agian oraindik tenorez gaude okerrak zuzentzeko izendapen hori herrian

gehiago sartu baino lehen. Hortaz hemendik dei bat egin nahi nieke aldaketa hori egin duten pertsoneri eta onartu duten erakundeei.

Patxi INIGO

Gaizki dauden bertze zenbait izen

Azkenaldi honetan «**Bortziri**» zabaldu den bezalaxe, egoki ez diren bertzezenbait toponimo eta erabilera hedatu dira gure artean. Zenbaitetan gaztelera izan da leku izen ez-egoki horien eragile, baina beti ere tradizioaren kontra jo dugu, *betidanik* herriak erran izan duenaren kontra.

Badugu aipatutako guzi honen muestra haundirik gure artean ere, Bortzirietako mugetatik ateri gabe eta karretera bazterrak utzi gabe: erraterako, herriak oraintsu arte inoiz ez omen du «**Igantzikoko Bentak**» izena erabili, «**Berri-zaun**» izan da ingurune horren izendapena, horren proba XIX. mendean ere aurkitzen dugularik.

«**Bentak**» bezala ezagutzen ditugunen artean ere, Etxalarkoak ditugu eta izen hau ere egokia ez dela ez da oraingo kontua. Paraje hori betidanik «**Etxalarlatsa**» izan baita. Beraz, dei ditzagun tokiak berez duten izenengatik eta ez gerora erdararen eraginez jarritakoengatik. Dei honek bai bortziritar baita guzi honen ardura duenarentzat oharra izan nahi du.

«**Lesakako zubia**» bere horretan ere ez omen du inoiz herriak horrela erabili, «**Bereau**» baizik. 'Lesakako zubi' hori erdarakada hutsa dela garbi gelditzen da, gaztelerez 'Puente de Lesaka' delakotz.

AHOLKURIK BEHAR IZANEZ GERO, DEITU

Etxe berriari izena nola idatzi, hilarrietako plakatxo bat nola moldatu edo komertzio, jatetxe edo ostatu berriaren izena euskaraz nola idatzi ez badakizu, deitu

634125

Uztailak 15, ortzirala
Arratsaldeko 9etan txupinazoa. Gero, kalejira trikitilari eta txistulariekin.

Gaueko 11,30etatik 3,30etara, dantzaldia URRATS taldearekin.

Uztailak 16, larunbata
10etan kalejira trikitilari eta txistulariekin. **1etan** herri kirolak: Saralegi anaien erakustaldia. **6etan** futbito partiduak. Arratsaldean gauez dantzaldia ADUR taldearekin.

Uztailak 17, igandea
10etan kalejira. **12etan** meza nagusia. **6etan** pilota partiduak: Leiza eta Apeztegia, Urrutia eta Otxotekoren kontra. Saldias eta Babaze, Baleztena eta Zozaiaren kontra. **8etan** dantzariak. Arratsaldean gauez, URRATS taldea.

Uztailak 18, astelehena
10etan kalejira. **12etan** mus txapelketa. **5etan** haur jokoak. **6etan** 'plater tiraketa'. Arratsaldean gauez ADUR taldea.

Uztailak 19, asteartea
10etan kalejira. **2,30etan** herri bazkaria. Arratsaldean gauez URRATS taldea. Ondotik, besten bukaera.



San Martin bestak 1952. urtean: Argazkian Luis, Martin Aizpuru 'Aixpuru' (alkatea), Benedicto Vicente (sekretarioa) eta Joxe M^a Mikeo

Argazkiak: Maite ARIZTEGIk bilduak



Herriko neska dantzariak



1956. urtean, Ittungo mutilak Lasagako bi behi pareren kontra egindako sokatira apustua.

ITURENGO PISZIFAKTORIA

Besta ederrak pasa!

Tfnoa: 450233 • ITUREN



MENDAUR OSTATUA

Besta ederrak pasa!

☎ 45 05 73 • ITUREN

**ETXANDI
 TXOKO
 erretegia**

Bazkari, afori eta
 gosariak

ITUREN
 Tfnoa: 45 04 91



*Iturengo Udalak
 Besta zoriontsuak opa dizkizue
 Iturendar eta bisitari guztioi*

AVRTIZKO
 OSTATVA

JATETXEA
 ✨ OSTATVA ✨
 TABERNA

☎ 948-450477
 ITVREN • NAFARROA



Uztailaren 16an etxebizitza berriei buruzko bilera

Eskuratu ahal izateko bete beharreko kondizioen berri emango da bertan

ESTEBAN AROZENA

Aspaldikoa bada ere udalak egiteko asmoa duen etxebizitza sozia- len kontua, badirudi pixkanaka gaindituz doazela oztopoak eta epe motzean hasiko dela 18 etxe hauen eraikuntza. Dena den, egin beharreko etxeak baino erosle gehiago egon daitekeela pentsatuz, bizitza bat eskuratzeko bete behar- ko diren baldintzen zerranda osatu du udalak, hurrengo larunbatean arratsaldeko 7,30etan emango delarik honen berri.

Udaletxean buru- tuko den asanblada honetara herritar guz- tiak gonbidatuak dau-



Dani eta Ainararen anai-arrebak bigarrenak izan ziren trikitixa txapelketan

de eta batez ere, etxe hauetako baten jabe egiteko asmoa dutenak.

Udaletik datozen berriekin segituz esan, Euskaldunon Egunka-

riak burutzeko asmoa duen kapital anpliazio- an lagunduko duela udalak 25.000pezetako akzio bat erosiz. Bestalde, urtero Iruñan an-

tolatzen den Udako Euskal Unibertsitatean goizuetarren batek ize- na eman nahi balu, aiuntamentuak ordain- duko lioke matrikula.

Trikitixa finala

Dani eta Ainararen Narbartek ia eskuetan izan zuten uztailaren 3an Iruñean ospatu zen Nafarroako I. Trikitixa Txapelketaren lehe- nengo postua, baina azkenean, bigarrenare- kin etxeratu beharrean aurkitu ziren. Danik esan digunez, bezpera- tik oso urduri zegoen, eta normalean tranpal- dora igo orduko lasai- tzen bada ere, orain- goan ez zen horrelako- rik gertatu eta nerbio hauen ondorioa izan omen zen egindako akats txikiren bat. Hala ere, oso pozik agertzen ziren anai-arrebak egindako lanarekin.



Sanjoan bezpera ospatu da lehenengo aldiz

Guraso Elkarteak antolatu zuen

JUANA M^o SAIZAR

Betidanik umetxoak papera eta kartoia bil- tzen dute plazan sua egiteko, bainan aurten, afaria izan zen salto egin aurretik. Denetik zegoen plazako arbo- laren azpian, jateko, edateko eta giroa alai- tzen, Jon, Jaione eta Maribel akordeoiekin. Gustora gelditu ginen eta hilean behin afaria egitea erabaki zen.

Arg.: Juana Mari



ttiipi-flash

❖ Tasak

Aurrerantzean, obra baimena lortzeko tasa kobratuko da. Industriadako %2,4 eta obra berrientzat %1,5.

❖ Industrialdea

Industrialdea urba- nizatzeke proiektua onartu da. Ura eta argia sartzeko da proiektu hau.

San Pedro eguna

Lehen herriko festak egun hauetan izaten omen ziren. Aurten, gazteen arteko eztabaidak dire- la eta, ez egitea era- baki zen. Ohitura hau galtzeko arriskua dagoenez, herritar batzuk kezkatu- rik festa hau mantentze- ko ahalegindu dira, eta baita antolatu ere. Goizean diana txis- tulariekin, meza eta San Pedroren irudia- rekin prozesioa, ha- meketakoa, umeen jokoak eta arratsal- dean dantza saioa. Ondotik, afaria pla- zan.



Argazki 'rally'ak edizio berri bat izanen du uztailaren 17an

Herriko obrak, erlijioa eta natura aukeratu dira argazkigai izateko

JOSEBA AZPIROZ

'Rally' honetan 16 urtez gorako leitzar guztiak parte har dezakete, eta goizeko 10etan hasi eta arratsaldeko 8ak bitarte iraunen du. Parte hartzaileak Aurrera elkartetik abiatuko dira ordu horretan eta bakoitzak bere makina eraman beharko du. Makina bakoitzeko, antolatzaileek argazki karrete bat banatuko dute, gero, dohain errebelatuko dutena.

Uztailaren 31n, partaide bakoitzaren hiru argazkirekin erakusketan egingen da Aurrera elkartean. Bertan, 'rally'ko partaideek osatutako epai mahai batek, gai bakoitzeko argazki bat aukeratu du, eta bakoitzari, 5.000 ptako. saria emanen zaio.

Antolatzaileek jakinarazten dutenez, rally-a ateratzeko gutxienez hamar partaide behar dira, eta gehienez 25.

Lanbide Eskolako ikasleak aktore

'Pelikula bat nola egiten den eta nola antzestu behar den' izan da esperientzia honen helburua. Guztira 25 antzeslek eta beste lau gidoigilek parte hartu dute. Lehenengo saioak ez omen dira perfektuak izaten, baina dena den, seguru edeki pasatu dutela.

Hiltzeko zorian dagoen agure batek bere gazte denboretaz egiten dituen gogoetak kontatzen dira pelikulan.



Leitza, Areso, Arano eta Goizuetako euskarari buruzko ikerketa

Ikerketa hau egiteko beka deialdia luzatua zen berriki. Azkenean, guztira hiru talderen proposamenak aurkeztu dira, eta epaimahaia-

ren iritziz, Juan Joxe Zubiri Lujanbio eta Patziku Perurena Loiarrek agertu dutena da puntuaziorik altuena eraman duena.

'Plazaola'ren azal lehiaketa

Hilaren 16a da lanak aurkezteko azken eguna. Plika sistema erabiliko da froga erabakitzeke, eta argibideak eskatzeko, J. Aranburu eta Karmele Agirre-
rengana jo daiteke.

ttipi-flash

❖ Lan munduaz informazioa

Gazteendako Lanbide Orientazio Zerbitzuak, 16 eta 30 urte bitarteko neska mutilei deia luzatu die hilaren 27rako. Udaletxean eta arratsaldeko 8etan, lan munduaren egoeraz hitzeginen da bertara bildutakoekin.

❖ Administrari laguntzailea

Ekainaren 30ean burutu zen frogara bost lagun aurkeztu ziren guztira. Azkenean, M^a Josefa Azpiroz izan zen puntu gehien lortu zituena eta bera izanen da aldi baterako kontratatuko duena Leitzako udalak. Egunean 3 orduz lan egingen du eta bere eginkizun printzipala testuak euskaratzea izanen da.



IÑAKI ITURRIA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Instalazio zaharren berritzeak

PORTERO AUTOMATIKOAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12
 ☎ 635028 - 635246
 31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
 ☎ (943) 61 24 24
 20300 IRUN

1
2
3

ORQUIDEA

Alergia Probak Gaidituak.
 % 100ean Perfumerik Gabe

Egunero Azal Berri Bat

Colon P., 28
 ☎ (943) 62 42 20
 IRUN



Baztandarren Biltzarra igande honetan ospatuko da

Ohizko orga apainduen desfilea eta herri bazkaria izanen dira ekitaldi aipagarrienak

J. IGARABIDE

Uztailaren 17an ospatuko da Elizondon aurtengo Baztandarren Biltzarra. Igandeko ekitaldiak, goizeko 10etan jotatuko den laxoa partiduarekin hasiko dira. Eguerdian, ohizko desfilea burutuko da, orga apainduak, txistulariak, erraldoiak, gaiteroak, fanfarreak, zanpanzarrak, zankudoak eta 500 dantzariren partehartzearekin. 25 artisauen eskulanak ere ikusgai izanen dira. Herri bazkarian, Erramun Martikorena, Bittor Aiepe, Anje Duhalde eta Niko Etxart abeslariak ari tuko dira kantari. Eurekin batera, bertsolariak, musikoak, larraintantza, mutil dantzak... ikusgai eta entzungai izanen dira.

Egun nagusia igandea bada ere, larunbatean soinuariak eta txarangak ibiliko dira Elizondon eta Basajaun taldearekin gaupasa.



Amaiurkoa izan zen orga politena iazkoan

Artxiboa

Baztandarren Biltzarra Elkartearen Gazte saila sortu da

Joan den ekainaren 26an burututako Gazte Asanblada batetan sortu zen Baztandarren Biltzarreko Gazte Saila. 14 eta 30 urte arteko baztandarrei zabaldu zaien sail honen helburu nagusia Baztango gazteria elkartzea eta giza dinamizazio bat bultzatzea da. Euskal kultura bultzatzea eta gazte programak bultzatzea nahi dute.

Zuzendaritza batzordeari dagokionez, zuzendaria Iñaki Irigoien izanen da, zuzendari ordea Amalia Gonzalez, idazkaria Rakel Goñi eta diruzaina Amaia Goienezte. Hauekin batera, Baztango kuartel bakoitzeko ordezkari bat eta sor daitezkeen komisioetako ardura-dun bat izanen dira batzordean.

Aurtengo udal aurrekontua 1.057 milioi koa

1.057.724.739 pezetakoa izanen da aurtengo udal aurrekontua, azken batzarrean, EA eta HBren aldeko botuekin eta UBren kontrakoekin, onartutakoaren arabera. Diru irteera haundiena, ia urterobezala, langileen soldadari dagokiona izanen da, 190 milioirekin. Aurrekontu orokorarekin batera,

Baztan udal ikastolarena (55.547.740 pezeta) eta F.J. de Iriarte zahar eta jubilatutako etxearena (138.720.000 pezeta) onartu ziren.

Union Baztanekoaren erranetan, kontrako botua eman zuten, erresidentziaren aurrekontuaren alde zeudela agertu arren. Euren ustez, aurrekontu ezberdinak direnez,

ez lirateke osotasunean botatu behar.

Iazko kontuak ere onartu ziren pleno berean. UBk kontrako botoa eman zuen, iazko aurrekontua herriko ekonomiarendako kaltegarria izan dela erranez. Alkatearen ustez berriz, zorrak aitzineko legislaturan eskatutako prestamoen ondorioa dira.

HERRIKO BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

UDAKO MODA

ARROPAK • TELAK • BITXIKERIAK

...eta behar dituzun
konplementu guziak

18tik AITZINERA MERKEALDIAK

PATXI BENGOETXEA

Era guztietako hargintza lanak

© 45 23 36 • ELIZONDO

SAS KAITZ
fontanería
calefacción

Empresa colaboradora de
REPSOL
AUTANO

**Era guztietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

'Guardia Zibilek buruan boltsa jarri zidatenean, bertan geldituko nintzela pentsatu nuen'

Holaxe mintzatu zen Xorroxin Irratian Paulino Ariztia

JOSEBA IGARABIDE

Libre eta kargurik gabe daude Manuel eta Paulino Ariztia eta honen emaztea den Begoña Etxegarai. Guztiak Juan Jose Maioraren hilketarekin ustez nolabaiteko zirikusia zutelako kartzeleratuak izan ziren. Gertaera guzi honen berri emateko, Xorroxin Irratian luze eta xehetasun aunitz kontatuz solastu zen Paulino Ariztia. 'Ez da jendea tratatzeko modua' erraten zuen. 'Boltsa jarri zidatenean ito-urrena gelditunintzen'. Bere alde deklaratu zuten testiguen eskerrak eman ondotik, beren izen ona garbitzeko zer egin artertzen hasi direla adierazi zuen Paulinok.



Baztanaldean jendea haserre dago Paulino Ariztiari (ezkerreko argazkian) eta bere anaia Manueli (eskuinekoan) egin diotenarekin.



Baztango dantzariak musika jaialdia antolatuta dute Elizondoko bestetarako

Heldu den larunbatean, uztailak 23, gaueko 11etatik aitzinera kontzertua izanen da Elizondoko frontoian, Baztango dantzari taldeak antolatuta, Elizondoko herriaren laguntzarekin. Musika jaialdi honekin, dantza

arropak berritzeko dirua atera nahi dute Baztango dantzari taldea osatzen duten 20 neska-mutilek.

Horretarako, Exkixu eta Les Mecaniciens taldeen kontzertua izanen da eta ondotik dantzaldia, Ale-

gria taldea eta gaiteroen laguntzarekin.

Sarreran salgai daude honez gero Elizondoko Intzan eta Kasinon, Donezteben 12n eta Lesakan Atxaspin, 500 pezetaren truke. Takillan 700 pezetan egonen dira.

ttipi-flash

Garagardoaren Eguna Iruritan

Iruritakogazteek antolatu dute uztailaren 30erako. Arratsaldeko 5etan hasi eta 12 orduz, Gutariko Bat, Noise Hole, Mister Xaguak, Sodedak Alkoholika, Kojon Prieto y los Huajolotes... eta abar izanen dira. Gainera, 20 marka ezberdinetako garagardoak egonen dira probatzeko. Sarrera 800 pezetakoa izanen da.

Bake epailea

Elizondoko Jose J. Apezetxea da Baztango bake epaile berria. Orain arte Miguel Gil Mendi izana da.

HERRIKO BESTA ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

MABEL GOXOTEGIA

Ongi pasa herriko bestetan

Gotzai Berekoetxea • © 452134
ELIZONDO

SALGADO Autozerbitzua

Besta onak pasa

Pedro Axular • © 452378 • ELIZONDO

CIAURRIZ

HARATEGIA • URDAITEGIA

Besta on batzuk pasa

Jaime Urrutia 28 • © 580257
ELIZONDO

M^a Carmen

Arropa konfekzioak

Haur eta helduentzako arropetan espezializatuak

Braulio Iriarte 22 • ELIZONDO

Sara

Ikastolakoak Donezteben gaindi ikasturte bukaerako ateraldian

Bertzalde, Seaskak mende laurdena ospatu zuen Baionan uztailearen 2an

MIXEL ETA JACQUELINE

Olhain ikastolako ikasleek urte bukaerako ateraldia egin berri dute. Aurten Nafarroako aldi zuten. Doneztebeko Euskaltegian bi egun iragan dituzte, Malerrekako inguru zoragarriak eza-gutzeko asmoarekin. Parada honetaz baliatu nahi dute eskerrak eta goraintziak emaiteko Euskaltegiko ardura-dun guztieri, beren harre-rra ezin hobea izan baita.

Seaskak 25 urte

Eguraldia lagun Seaskak bere mende laurdena ospatu du airostasun osoan. Baionako auzo eta karrikak 500 bat artistez alaituak ziren eta giroa ezin



Olhain ikastolako neska-mutikoak Malerrekan izan ziren ikasturte bukaeran

hobea zen. Bederatzi lekutan ikastolak ikastolek jatera eta edatera eskeintzen zuten eta Sarako Olhain ikastol-ak ere Senperekoekin

batean. Orroitarazi be- har da Seaska, ikasto- lak elgarretaritzen duen federakuntzadela, 1969an euskarazko erakaskuntz alor bat

sortuz. Gaurko egu- nean 17 ama ikastole- tan, 12 lehen mailetan eta Kanbon 1.300 ikas- lez gotik jarraitzen di- tuzte beren ikasketak.

San Mixel Garikoitz pastorala

Uztailearen 24ean eta agorriaren 7an iragan beharra da Donaixti Ibarren San Mixel Garikoitz pasatorala. Lehen aldikotz Zuberoatik kanpo emanen da pastorala. Mixel Garikoitz Ibarreko seme bat zen eta Junes Casenave-Marigile Santa Graziko apezka dugu omenaldi berezi hunen egilea.

Donibane

Lohitzuneko amategia hetsi zorian dago, jaiotzek azken urte haue- tan behiti egin dute- lakoan. Hau ezin onar- tuz, 800 bat jendeek parte hartzen zuten Donibanen egin den manifestaldian.



KIWI BAZTAN, S. A.



FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN ZUZENENKO SALMENTA

MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01
Fax-a: (948) 58 11 01

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

SOULE

GURUTZE ETA HILARRIAK

☎ 453038 ARIZKUN
☎ 123572 IRUÑA



ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

ERRATZU OKINDEGIA

zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU

ARLA
ARDOTEGIA

Ardoak • likorrak •
freskagarriak

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66 • ELIZONDO

- * Jardinak apaintzeko landareak
- * Barneko planta extranjerotik ekarria
- * Marokkoko artisau lanak
- * Koroiak
- * Ezkontzarako apaingarriak



LOREDENDA • GARDEN CENTER

MERKEALDIAK jardinetako osagarrietan

Aritzondo (Bergara Auzoan) • Tfnoa: 580971 • ARIZKUN
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE



Juanikoteneko Luziano Mihura eta Dionisia Elorga omenduak izan ziren

Arkupeak antolatutako omenaldietan, urrezko ezteiak ospatzen dituztenak eta 85 urte bete dituztenak parte hartu zuten

ALIZIA OLAIZOLA

Juanikoteneko Luziano Mihura eta Dionisia Elorga izan ziren aurten Arkupeak omendu dituen urdazubiarrak. Urrezko ezteiak bete dituzte, 1944 otsailaren 16an ezkondu baitziren Erratzun.

Istripuan hila

Ekainaren 28ko arratsaldean, Telleriako auzorat ailegatu baino lehen, Iruñeako 31 urteko gizon bat hil egin zen bere autoarekin maldatik joan zenean. Bere emaztea salbo gelditu zen autotik kanpo zegoelakoz.



Gaineko argazkian, Zugarramurdiko Jose Angel Olaizola zikiroa erretzen. Eskuinaldekoetan agerienez, gazteek umore ederra zuten Sanjoan arratseko zikiro jatean.



Herriko hiru zakur hil dira pozoinketaren ondorioz

Dirudienez pozoina haragi pusketan sartua izaiten da

KORO ETA MARGARI

Duela urte pare bat gertatu izan zena berriz ere gertatu da: zakur pozoinketa.

Orduan Behitiko karrikan zen eta aldi huntan plazan izan dira. Orain arte hiru zakur hilak suertatu dira (Tuis, Pinto eta Puxka) eta zorionez suerte hobea izan zuen Kixuk, azkeneko momentuan esnea eta gatza edanaraziz goiti botarazi baitzioten.



Kixu juxtu juxtuan atera da bizirik. Iduri duenez, pozoina haragi pusketan omen zegoen eta pozoinatzailea nor den ere ahoz aho dabil.

❖ **Uztailaren 3an** akelarre baten erreprezentazioa izan zen lezeetan. UNESCO erakundeak urtero antolatzen ditu herrialde batetan ekintza batzuk.

Aurten Euskal Herriari egokitu zaionez, hiru egunez Gipuzkoan eta laugarrenean Nafarroan izan dira.

Azken honetan egindako ekintzetatik bat, Antsoingo haur batzuk lezeetan antzestutako 'Akelarre' baten emanaldia izan da.

EZKONTZAK

Agustin Etxebeste Bereau eta **M^a Aranzazu Apezetxea Aizpurua**, Arantza eta Goizuetakoa, ekainaren 25ean.

Jose M^a Baleztana Monaco eta **M^a Isabel Goikoetxea Zabaleta**, Leitzakoa, ekainaren 18an.

Jose M^a Ezkurdia Barasoain eta **M^a Jesus Lasarte Lasarte**, Gorriti eta Leitzakoa, ekainaren 25ean.

Juan Perurena Eskudero eta **Elena Campa Centeno**, Leitza eta Donostiakoa, uztailaren 2an.

Pedro Jesus Telletxea Aranburu eta **M^a Carmen Dendarieta Larraga**, Ituren eta Arraiozkoa, ekainaren 18an.

Felipe Alejandro Arago Rosales eta **M^a Eugenia Portillo Jaurena**, Mexico eta Elizondokoa, ekainaren 25ean.

Txomin Iribarren Larralde eta **Karmentxu Jaurena jaurena**, Urdazubi eta Elbetekoa, uztailaren 2an.

JAIOTZAK

Izar Lizarza Rodriguez, Leitzakoa, ekainaren 16an.

Mikel Sanchez Etxegia, Lesakakoa, ekainaren 27an.

Julen Garmendia Iriarte, Elizondokoa, ekainaren 17an.

Amaia Asiain Zelaia, Elizondokoa, ekainaren 20an.

Iñigo Berho Santos, Oronozkoa, ekainaren 23an.

Peio Mendionde, Sarakoa, era-roaren 24ean.

Joana Maritxular, Sarakoa, era-roaren 25ean.

Argitxu Telletxea, Sarakoa, era-roaren 25ean.

Maialen Oronoz, Sarakoa, era-roaren 27an.

Silvia Gonzalez Matxikote, Berakoa, ekainaren 26an.

HERIOTZAK

Mateo Aleman Aleman, Iruritakoa, ekainaren 19an, 72 urte.

Felisa Calabria Martinez, Elizondon, ekainaren 20an, 80 urte.

Beatriz Larrañaga Oteiza, Elizondon, ekainaren 24an, 91 urte.

Carmen Barbero Roldan, Elizondon, ekainaren 25ean, 88 urte.

Francisca Mezkiriz Egozkue, Elizondon, ekainaren 30ean, 80 urte.

M^a Luisa Gaztelu Ibarra, Berroetako, uztailaren 2an, 63 urte.

Gervasio Maiz, Arantzakoa, uztailaren 4an, 82 urte.

Encarnacion Larrondo Fagoaga, Zugarramurdikoa, ekainaren 29an, 87 urte.

Esteban Artieda Arandia, Berakoa, ekainaren 27an, 35 urte.

Manolo Irazoki Gainza, Berakoa, ekainaren 26an, 64 urte.

B RADIO BIDASOA

✓ **TELEBISTA, BIDEOA, HI-FI, ELEKTROGAILUAK...**

✓ **SUKALDE MOBLEAK**

✓ **«CANAL +» BANATZAILEA**

EZTEGARA PASEALEKUA 14 • BERA • TfNOA: 630377

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA

MERTZERIA


Parrokia 6

• Tfnoa: 450463 •
DONEZTEBE



Servicios de Limpieza
BIDASOA, S.L.

© 630557 • BERA



Hileta urteurrenak edo esker onak azaldu nahi izanez gero, TTIPI-TTAPAK toki hau eskaintzen dizu

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak 088/061

Osasun Zentruak

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako ospitalea ..102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino erresidentzia109400

Gurutze Gorria226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea614600

Gipuzkoako ospitala460299

Erresidentzia453800

Anbulatorioak

Irún630264/621106

Anbulantziak

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Doneztebe637404

Elizondo580924

Lesaka.....637404

Suhiltzaileak

Oronotz-Mugaire592255

Garraioak

Bidasotarra631150

Baztanesa580129

Leitzarán515018

Aberiak:

Iberduero450335/450336

Baztan Bidasoako CCOO sindikatuak egoitza berria zabaldu du Beran

Baztan-Bidasoako CCOO, Berako Bidasoa karrikan duen egoitza berria ideki zuen uztailearen 4ean. Inaugurazio ekitaldira Jesus Garatea, Nafarroako Idazkari Orokorra agertu zen, Fernando Arozena, Laminaciones-eko delegatua eta bertze zenbait militantekin batera.

Sindikatuak 350 afiliatu inguru ditu eskualdean, baina Garateak erran zuenez indarra hartu nahi dute poliki-poliki, "ezin baita alde batera utzi Laminaciones edo Funbera bezalako enpresa garrantzitsuak dituen zo-



Sindikatuak ordezkariek egoitza berria

Arg.: AITOR

nalde hau". Laister, inguruko udalekin biltzeko asmoa azaldu zuten CCOOkoek, es-

kualdeaberrindartzeko udal-elkarte bat bultzatu nahirik. Sindikatuen honen arabera,

1.220 langabetu daude orain eskualdean, gehien bat industria eta zerbitzu sektoreetan.



Nafarroako Iparraldea 93-96 Plan Estrategikoa

'Cederna-Garalur'ek bultzaturik, Nafarroaren mendialdeko garapen sozio-ekonomikoa bultzatzea helburu duen plana ari da prestatzen. Prozesu horretan, Baztan, Bortzirriak, Bertizarana eta Malerrekako hainbat

gizarte agentek parte hartzen dute, Zonaldeko Batzordearen partaide gisa. Arazoen diagnosis egin, helburuak zehaztu eta araberrako jokabideak diseinatzeko, uztailearen 5ean bildu ziren azkenekoz Juansenean.

Olatz
Relojeria
Joyeria

GARAI ZAILETARA EGOKITUTAKO PREZIOAK

Bisita gaitzazu eta ikusiko duzu.

Larunbatetan goiz-arratsaldez irekia
SAN PEDRO, 3 - Hondarribia

(943) 64 56 78

TRAFFIC

GIZONEZKOEN MODA

Negozioa ixten dugula eta, LIKIDAZIO OSOA

IRUNGO LUIS MARIANON

Lehendabiziko txapela Koteto Ezkurra eta Patxi Etxeberria doneztebarrentzat

Halere, ezin izan zuten Matxin II eta Aizpururen kontrako bigarren partidua irabazi herritarrez betetako Euskal Jai Berri frontoian

Euskal Jai Berrin jokaturako partiduan 39-40 galdu arren, erremon-te izarren txapela eskuratu zuten Koteto Ezkurra eta Patxi Etxeberria doneztebarrek. Kontutan hartu behar da, Galarretan jokaturako lehen partiduan 40-26 irabazi zieten Matxin II eta Aizpururi.

Beraz, 27 tanturekin nahikoa zuten Koteto eta Patxi eta horien bila indarrez atera ziren. Etxeberriak gibelean errex dominatzen zuen eta Ezkurrak bi paretetara eskuratu zituen tantu parraxta bat, honela 22-9ko abantaila lortuz. Doneztebarrek hogeitazazpigarren tantua atera zutenean, txalo zaparrada ederra eskeini zieten pilotalekura hurbildutako herritarrek, ordu batzuk beranduado Donezteben egindako ongietorriaren aurrerapen gisara. Halere, txapela poltsikoan izanda sobera lasaitu ziren bi erremon-telariak eta kontrarioak hurbilduz joan ziren poliki-poliki. 39-37 irabazten egon ziren Koteto eta Patxi, baina Matxin II eta Aizpuruk buelta eman zioten markagailuari, 39-40 irabaziz.

Poza ez zen erabatekoa izan, baina garrantzitsuena, lortua zegoen: bai Ezkurrak, baita Etxeberriak ere badute profesional mailako txapel bat.



Koteto eta Patxi, frontoira hurbildutako herritarrei eskeini zieten txapela

Argazkiak: D. Noticias

"Ez dadila azkena izan.."

Pozik zeuden Patxi eta Koteto, baina pena pixko bat ere bazuten, partidua galtzegatik. Aurrelari gaztearen erranetan, "txapela eskuratzeko helburua bete dugu, baina pena izan da partidua ez irabaztea. Garaipena Donezteberri eskeintzen dio!". Atzelaria ere iritzi berekoa zen eta bukaera aldera arazo fisikoak izan zituela erraten zuen: "Bukaera aldera arazoak izan ditut eskuin besoan. Hasieran ederki aritu gara, gustoko pilotarekin, baina gero xehetu egin da eta material aldaketa beraientzako mesede



Koteto Ezkurra



Patxi Etxeberria

izan da".

Etozkizunera begira, baikor agertu ziren biak. Abuztuan 21 urte beteko dituen Koteto Ezkurrak zioenez, "nobatoak bezala sartu ginen baina txapela eraman dugu. Nere le-

hen garaipen garrantzitsua da eta hemen-dik aitzinera gehiago etortzea espero dut".

Patxi Etxeberriak 29 urte bete zituen ekainaren 24an, baina itxaropentsu agertu da: "Titulu hau, erremon-

telari profesional bezala egiazko hasiera da neretzako. Gailurrera iristeko balio izan zait eta gogor borrokatuko dut hor goian mantentzeko".

Seguro horretan saiatuko direla.

Jose Mari Irazoki beratarrak Euskadiko marka hoberena lortu du 100 metrotan

Hilaren 15ean Estatuko txapelketa nagusian parte hartuko du Donostian

Jose Mari Irazoki, Real Sociedad taldean ari den korrikalari beratarrak aurtengo euskal marka hoberena egin zuen Euskadiko atletismo txapelketan, 10.67ko denborarekin. Marka hau, Nafarroako errekorra dela erran daiteke, orain arteko denborak eskuz hartzen baitziren.

Jose Marik, marka hau espero zuela erran du, txapelketa antzinetik gogor entrenatu baitzuen. Bere ustez, marka hau da inoiz izan duen arrakastarik haundiena. Orain arte,



Jose Mari Irazoki

pista estalian eta 60 metrotan egin zituen denborarik hoberenak, baina estalpetik aterita eta 100 metrotan ere

Herri kirol txapelketa jokatu zen uztailaren 3an

Uztailaren 3an burutu zen Iruñan Nafarroako herri kirol txapelketa modalitate ezberdinetan.

Txingatan, Lourdes Telletxea beratarrak irabazi zuen. Koxkor biltzen Leire Portu lesakarrak juxtu-juxtuan irabazi zion Txaro Zu-

bieta beratarri.

Gizonezkoetan, koxkor biltzen, Narteko Mitxelek irabazi zuen eta bigarren Fernando Etxegarai beratarra.

Orga jokoan, Etxegarai anai beratarrek eskuratu zituzten bi lehen postuak.

momentu onean dagoela erakutsi du.

Sanfermin egunean Espainiako junior txapelketan parte hartu

behar zuen eta hurrengo saioa, hilaren 15ean Donostian kurrituko duen txapelketa nagusia izanen da.

Bota prontoan

Bortzirietako

futbito txapelketaren irabazlea Etxalarko taldea izan da, finalean 5-4 irabazi baitzuen. Urtero bezala, Lesakako Beti Gazte elkarte arduratu da ekitaldi honen antolaketaz.

Hilaren 10ean

jokatzekoa zen Baztan Malerrekako XV. laxoa txapelketaren finala Doneztebeko Beartzana plazan, Doneztebe eta Oitzen artean.

EGUR - LANAK

ZURGINDEGIA

- SUKALDE MOBLEAK
- ATE ARRUNTAK eta SEGURTASUNEZKOAK
- ESKAILERAK, SOLAIRUARTEAK eta TEILATUAK
- OHIZKO TARIMAK eta FLOTANTEAK
- MOBLEAK NEURRIRA
- PARETAN SARTZEKO ARMARIOAK
- SUKALDE eta ELKARTEETARAKO MAHAIK
- KALITATE ONENeko EGURREZKO LEIHOAK
- LEIHO MIXTOAK:
-Aluminioa + egurra (haritza edo sapely)



ERAKUSKETA:

Altzate karrika, **BERA** • Tfnoa: 948-630117 (Arratsaldez bakarrik)

KONTZERTUAK

ELIZONDO

Uztailaren 23an
Gauko 11etan Iriarte pilotalekuan 'Baztango dantzariak' antolatuta eta Elizondoko herriaren laguntzarekin. Kontzertua Exkixu, Les Mecaniciens, dantzaldia eta gaiteroak.

ELGORRIAGA

Uztailaren 24an
Aleguendiko 12etan, E. Ubani 'Japoneko Zilarrezko domina' ren kontzertua.

KANTALDIAK

ELIZONDO

Uztailaren 25ean
Aurratsaldeko 7etan Mikastolako parkean, Kantaldia Jojo eta Ramuntxorekin. Sarrera dohainik.

ANTZERKIAK

ELIZONDO

Uztailaren 27an
Aurratsaldeko 5etan Kukubiltxo' haur antzerki taldearen saioa Saskaitz plazan. Jaiotza' antzeslana.

GUARDIAKO BOTIKAK

Uztailaren 11tik
17ra Etxalar, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Goizueta
Uztailaren 18tik
24ra Lesaka, Narbarre, Irurita, Goizueta.
Uztailaren 25tik
31ra Bera, Ituren, Elizondo (Lezaun) eta Goizueta.

ERREZETA



Piperrada Baztango modura

Osagaiak

- 2 tipula xerra finetan • 2 piper berde • 3 baratxuri pikor xerretan • 3 tomate gorri takotan • xarbota eta perrexilarekin egindako lotua • Tortillarako 80 gr. gurin • 8 arraultze • 4 xerra urdaiazpiko

Prestatzeko manera

Olioia duen ontzi batean baratxuria, tipula eta piperra bota

eta 8 minutu utzi izerdia botatzen su xubean. Ondotik tomatea erantsi eta bertze 15 minutu utzi. Gatza eta azukre pittin bat bota.

Egina dagoenean, zartagi batean gurina urtzen jarri eta arraultzeak gatza pittin batekin irabiatu ondotik bota tortilla bat egiteko moduan. Erdi egina dagoenean piperren saltsatik bu-

runtzale bat hartu eta erantsi tortillari. Serbitzerakoan, platerdia piper saltsaz bete eta bertze erdia tortillaz, gainetik urdaiazpiko xerra olioan pasatua jarriko diogularik.



Pello GARMENDIA
Eskisaroi
Jatetxea
• Lesaka •

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoak): 5.100 pzta.
- Zerri gizena (95-100): 178 pzta/kilo
- Zerramak: 115 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
Extra 620-630
1.koa 580-600
2.koa 550-570

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal
Extra 630-640
1.koa 590-610
2.koa 560-580
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruzentzako.

• Aretze tikiak (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 25.000 eta idixkoak 37.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 39.000 eta idixkoak 50.000 pzta.
• Behi zaharrak:
Behi nabar gizena: 4300 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 490 Pzta./Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza
• Bertako sagarrondoa 930.
• Udareondoa 930 pta.
• Gereziondoa 1.050 pta.



❖ BARAZKIAK ❖

- Piper txorizero zientoa 800.
- Piper morro zientoa 800.
- Piperminak zientoa 600.
- Valentziar tipula zient. 250.
- Letxuga zientoa 400 pta.
- Azelga zientoa 400 pta.
- Pepino sorta 25 pta.



- OTORDUAK •
- LOGELAK •

Tfnoa: 450793

ALBARTETXEA JATETXEA

HARAGI ETA ARRINETAN

ESPEZIALIZATUA

Erreserbak egiteko deitu 627637 2ra

Antoiu 26 • LESAKA

JAKIN BEHARREKOA

Begietatik operatzea irtenbidea da?



Miopia arazoak moldatzeko operazioen artean, %10ak bakarrik lortzen du arrakasta osoa. Oraindik orain, betaurrekoak eta lentillak dira arazoa moldatzeko metodorik hoberenak

normalean 'lentilla' bezala ezagutzen ditugun horiekin.

- Dioptriak zuzentzeko metodo kirurgiko errexak baldin badaude ere, ez dira komenigarriak, epe luze batean ez baitira batere ziurrak.
- Pazienteak 6 dioptria baino guttiago baldin baditu *queratomia radialis* izeneko operazioa egiten

da; kornean ebaki batzuk egiten dira, honen kurbatura tikitzeke. Halere, zuzenketa ez da osoa eta operazioa egin dutenaren %90ak dioptriaren batekin gelditzen da.

- Egin beharreko zuzenketa 6 dioptria baino gehiagokoa baldin bada, *queratomileusis* izeneko kirurgia teknika da erabiltzen dena. Honekin, kornea zati bat kentzen da, kornearen kurbatura tikitzeke. Preziski, kornea da begiaren zati sanoa.

EROSKI aldizkaritik hartua

Kirurgia, oraindik oraintsu arte, gaixotasun batzuen operatzeko modu oso espezifikoa bat zen. Begietako arazoak konpontzeko aplikatzea ordea, arraz gauza berria da eta benetak iraultza bat gertatzen ahal da arlo honetan. Izan ere, dioptria-kopuru handia duen jende aunitzi (gogoratu bertzerik ez dago "baso-ipurdiko antioju" antiestetiko horiek) arazoa konpontzen ahal baitzaio operazio kirurgikoen bidez. Espezialistak diotenez, behin 5 dioptriatik goiti izanez gero komeniko litzateke begietako kirurgia egokia den edo ez aztertzeko estudio bat egitea.

Laburrean

Espezialisten eritzien arabera, begietako miopia arazoak dituen jendeak (hurbileko gauzak ongi ikusten ditu baina urrunekoak ez ditu garbi ikusten) honako argibide hauen berr jakin behar du:

- Miopia ederki moldatzen ahal da lente zuzentzaile edo kontaktuzko lenteekin,

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

ELIZONDO

Uztailaren 23tik 28ra. Ikus xehetasunak aparteko gehigarrian.

ELGORRIAGA

Uztailaren 22tik 26era. Ikus xehetasunak 16. orrialdean.

ITUREN

Uztailaren 15tik 19ra. Ikus xehetasunak 17. orrialdean.

BAZTANDARREN BILTZARRA

Uztailaren 17an 10etan laxoa partidua, 12etan orga apainduen desfilea, 2,30etan herri bazkaria: Erramun Martikorena, Bitor Aiepe, Anje Duhalde, Niko Etxart, bertsolariak, larrindantza, mutildantzak, abeslariak, musikoak, dantzaldia, Arizgoiti...

EUSKARA

IKASTAROAK

Uda osoan IKAK antolatuak, lau orduko ikastaroak Lesaka, Etxalar, Arantza, Doneztebe eta Leitza. Maila guztiak.

MAGNETISTA - NATUROPATA ZURE BEGIAK ZAINTZEN DITU

BISTAREN ERREKUPERAZIOA

- Begi alferrak, estrabismoa, kataratak, retinosia, begietako neuritisa, begietako infekzioak, konjuntibitia, miopia, hipermetropia.

REHABILITAZIOA

- Artrosia, Artritis erreumatoidea, bihurdurak, lunbalgiak, zerbikalgiak, psoriasis, diabetesa, azaleko alergiak, zizareak, oinetako izerdiak, birusak, asma, buruko minak, kolesterola, erreuma, prostata

Kontsulta Ordutegia: Arratsaldeko 2etatik 10etara (Ordua eskatu)
San Marcial 7 - 4. - IRUN © (943) 62 30 55

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ora

ETXEBIZITZAK

Borda argiarekin erosiko nuke Bera, Lesaka, Etxalar edo Sunbillan. ☎ 206502 (Lourdes).

BERA. Pisua eta bajera salgai. ☎ 631218 (Geta-tik goiti).

Pisu bat alokatu nahi nuke Doneztebe eta Iru-rita artean. ☎ 247893 (carlos).

DONEZTEBE. Pisua salgai, 80 m² erabilgarri, kalefakzioa, trasteroa eta mobleak barne. 9 milioi. ☎ 637957 (eguerditan).

Pisu bat alkilatuko nuke. ☎ 294193 edo 340339.

DENETARIK

Sukaldeko armarioak (paretan zintzilikatze-koak) eta mahai eder bat (paretan biltzen den horietakoa) salgai prezio onean. ☎ 592157.

Panasonic KX-P1180 ordenagailuarentzako inpresora matriziala salgai (9 orratz). Oso gutxi erabilia. 25.000 Pta.. ☎ (943) 655450 (Joseba).

Bi zoom salgai: bat Uni-tar MC Auto Zoom Macro, 75-300/5.6, 20.000 ptatan; bestea Exakta Makro 28-70/4, 18.000 Ptatan. Biak gutxi erabilia eta oso egoera onean.. ☎ 393067, arratsalde eta gauz.

Baserrietako mobleak eta laborantzarako tresnak erosiko nituzke. ☎ 450054 (gaueko 9etatik 10etara).

Bigarren eskuko hozkailua nahi nuke. ☎ 635290 (Xabi).

Momtý Triasin T-219 bizikleta salgai. Freno hidraulikoak, koadroa aluminiozkoa eta gibelako rueda zabala. Hagitz egoera onean eta hagitz merke salduko nuke. ☎ 635219 (Arratsaldeko 8,30etatik 9,30etara).

AZIENDAK

Ahareak salgai. ☎ 450907.

Pointer arrazako zakur bat galdu da Igantzín. 7 hilabetekoa, zuri-gorria eta lepoko bat zuen. ☎ 627965.

Ardi txakurkumeak. Borondatea eskertzen da. ☎ 393067 (arratsalde edo gauz).

Ardi zakurkumeak salgai. ☎ 634062 (eguerdi eta arratsez).

Ardi txakurkumeak salgai. Hoién amak ardiekin lana oso ongi egiten du. ☎ 504492.

LANA

Magisteritzan diploma-tuak klase partikularrak emanen lituzke Lesakan. ☎ 637095.

Klase partikularrak ematen ditut: OHO, REM eta euskara. ☎ 635186 (eguerditan. Arantza).

Kartelak, Bisita Txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188 (bulego ordu-tan).

IBILGAILUAK

Honda VF 750 F salgai. Egoera onean, extrak ditu. ☎ 452292.

Citroen Visa Stilo TRS 1.4, NA-P matrikulakoa salgai. Egoera onean. ☎ 599176 (eguerditan).

Hagitz egoera onean dagoen FSO markako SS-8643-Aj matrikula duen kamiozkoa salgai 325.000 pezetetan. ☎ 631339 (Joakin, gauz).

AGURRAK

Zorionak eta muxu haundi bat Aresoko Igor, Unai eta Nairari beren urtebetzean (uztailak 26, 27 eta 28an), Juana Mariren partez.

Anizko Ainhoa eta Fermintxorentzat. Zorionak eta aunitz urtez. Uztailak 2. Bere lagunaren partez. Garazi eta Nekane.

Legasako Iker eta Joanari zorionak, 15ean eta 22an beraien urtebetetzeak baitira. Karabantxeletik, Josu.

Iruritako Muturi. Baztandarren Biltzarra egunean poteak zure kontura. Elizondoko lagunak.


Leitzako Josu Erbitiri. Zorionak atera dituzun notengatik. Ikaskideen partez.

Arantza Zabalari: zorionak zure urtebetetzean, uztailak 18. Beratik.

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegí bat,
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegí mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta atek,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

*Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.*





Pasa zaitez
geure
bulegoetatik
BERA
DONEZTEBE
LEITZA
LESAKA



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

ETXANIZ
Lesakako Iturria anaiak

Juan Arana 1 eta 3
Tfnoa eta faxa: (943)611767
20302 IRUN

Ez bakarrik saldu, zure bainua berritzeko edo
apaintzeko behar duzun guziaz kolokatu ere bai:

- **SANITARIOAK**
- **GRIFERIAK**
- **MUEBLEAK**
- **MANPARAK**
- **PREZIO GUZITAKO OSAGARRIAK**

ESKATU PRESUPUESTOA KONPROMISORIK GABE

festivales en navarra 2014

el teatro nos lleva de calle

S 25 lunes	a 26 martes	n 27 miércoles	ü 28 jueves
SKINNING THE CAT <i>Chamaleon</i> antigua plaza de toros 10'30 noche	L'HOME XOC EL ESPEJO NEGRO plazas municipales 12 mediodía plaza de las heras 8'30 noche 2 calle mayor 10'30 noche	EKIL I BRIDS GOG I MAGOG plazas municipales 12 mediodía plaza de las arcades 8'30 noche 2 conrasta del carmen 10'30 noche	GOG I MAGOG plazas municipales 12 mediodía espectáculo itinerante, salida casa de cultura 10 noche

teatro hoy

p 1 lunes	m 2 martes	i 3 miércoles	n 4 jueves
LA FURA DELS BAUS <i>M. T. M.</i> pabellón amateza 10 noche	LA FURA DELS BAUS <i>M. T. M.</i> pabellón amateza 10 noche	ATALAYA TEATRO <i>Así que pasan cinco años</i> teatro gayarre 10 noche	MOMA TEATRE <i>El caso Woyzeck</i> teatro gayarre 10 noche

tiempo de danza

p 8 lunes	m 9 martes	i 10 miércoles	n 11 jueves
PIE JUNTOAPIE <i>Ocupación de un espacio abandonado</i> teatro gayarre 10 noche	DANZA EN LA MIGNA YUNA <i>parque de la media luna 12 / 18 / 22 horas</i>	ARTESZENA <i>Amics Amics</i> teatro gayarre 10 noche	METROS con MARINA ROSELL <i>Mintreu, per favor</i> teatro gayarre 10 noche

caté-teatro

p 15 lunes	m 16 martes	i 17 miércoles	n 18 jueves
EL ESPEJO NEGRO <i>Tu de poble</i> escuela novarra de teatro 10 noche	TEATRE DE SAC <i>Elasistats</i> escuela novarra de teatro 10 noche	JOHNNY MELVILLE <i>La mujer</i> escuela novarra de teatro 10 noche	EL SUECO <i>Si soy así</i> escuela novarra de teatro 10 noche

músicas del mundo

a 30 martes	i 31 miércoles	s 1 jueves	a 2 viernes
TOQUINHO <i>polideporvivo</i> 10 noche	KANDA BONGO MAN <i>polideporvivo</i> 10 noche	CHEB MAMI <i>polideporvivo</i> 10 noche	RAY LEMA Y LAS VOSES BULGARIAS <i>polideporvivo</i> 10 noche

zona norte-elizondo

e 6 sábado	i 12 viernes	i 13 sábado
KIKO VENENO <i>carpa de los festivales 10 noche</i>	KARMEN LARUMBE DANZA <i>Naua Largo y Bolera</i> carpa de los festivales 10 noche	MARIA DEL MAR BONET <i>carpa de los festivales 10 noche</i>
7 domingo	19 viernes	20 sábado
JOSE ANTONIO Y LOS BALLETS ESPAÑELES <i>Cachorro Aire de Villa y Corte Flamenco</i> carpa de los festivales 10 noche	PASTORAL "SAN MIXEL GARIKOITZ" <i>carpa de los festivales 8 tarde</i>	8 domingo
26 viernes	d 27 sábado	0 domingo
ELS JOGLARS <i>El Nacional</i> carpa de los festivales 10 noche	ELS JOGLARS <i>El Nacional</i> carpa de los festivales 10 noche	9 domingo

